

hh

nik hasi

GAIA: M-LEARNING • ELKARRIZKETA:
FREI BETTO • EKARPENA: ZER DIO
GORPUTZAK HEZITZEN ARI GARENEAN?
• ESPERIENTZIA: JARREREK ERE BADU-
TE ZERESANA ZANGOZA IKASTOLAN



BERRIAK

Euskaldundutako irakasleei omenaldia

OINARRIZKO GAITASUNAK LANTZEKO KOADERNOAK

IKUSMEN JOKOAK



OPORRETAKO KOADERNOAK



*Jolas eginez eta ondo pasatuz
ikasitakoa ahaztu gabe edukitzeko aproposak.*



gaia

M-LEARNING

Teknologia berriek aukera asko zabaltzen dituzte, eta egunetik egunera gehiago. Kontua da, tresna berriek zertarako erabili jakitea. Bada, Zarauzko Arte eta Historia Museoa ederki asmatu dute PDAk, poltsikoko ordenagailuak, nola eta zertarako baliatu ikasleekin.



elkarrizketa

FREI BETTO

Idazle brasildarra ezaguna da hezkuntza munduan. Paulo Freireren ondoan egon zen herritarren hezkuntza defendatzen. Egun, heziketaren ikuspegi humanoa defendatzen du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

M-LEARNING: JOAN ETA IKERTU

16 elkarrizketa
FREI BETTO

24 ekarpena
Zer dio gorputzak hezitzen ari garenean?

Axier Huegun

28 esperientzia
Jarrerak ere badute zeresana Zangoza ikastolan


31 berriak
33 Euskaldundutako irakaslaei omenaldia egin zaie
34 Estatu frantseseko hizkuntza gutxituetako hezkuntza esperientziak
37 Erakus-truke topaketa Bilbon eta Donostian

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!
Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solaina. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz
Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagiren Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L.
Azaleko irudia: Euskaldundutako irakasleei egindako omenaldia Bilbon apirilaren 11n (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-IV-15). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du
harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



editoriala maiatza

Iru erriko D ereduko ikastetxeen egoera:

hazi bai, pilatu ez



Iru erriko D ereduko ikastetxe batzuk gainezka daude. Gurasoek euskarazko irakaskuntza nahi dute seme-alabentzat; administrazioak ez die erantzun egokirik ematen. Zonifikazioaren ondorioz, haurrak leku batzuetan pilatzen ari dira. Horrela ezin da bermatu kalitatezko hezkuntzarik.

Pentsa zer izan behar duen familia batentzat seme edo alaba bat auzoko eskolara bidaltzea eta bigarrena beste auzo batekora eramatea. Eta ez borondatez, ezinbestean baizik, halabeharrez, derrigorrez. Bada, horixe gertatzen ari da Iruñerrian. D eredua eskaintzen duten ikastetxeak gainezka daude, eskaerari erantzun ezinik. Eta zerrenda handitzen ari da. Arrotxapea auzoko Patxi Larraintzar ikastetxean 75 haurrentzako toki eskaini du Nafarroako Gobernuak datorren ikasturterako, eta 3 urteko 86 haurrek eman dute izena. Antsoingo Ezkaba ikastetxean 75 entzako lekua dago, eta 97k eman dute izena. Sanduzelai-ko ikastetxean ere eskaera eskaintza baino handiagoa da. Ikastoletan 274 haurrek eman dute izena eta 49 lekurik gabe gelditu dira.

Euskararen Legeak egiten duen zonalde banaketan Iruñerria zonalde mistotzat hartzen da. Zonalde ez euskaldunetan ez bezala, mistoan D eredua eskaintzen da sare publikoan, baina administrazioaren esku dago azken erabakia.

Nafarroako Gobernuak erabakitzen du non zer ireki eta itxi. Ez ditu aintzat hartzen zentroek eta gurasoek egiten dituzten eskaerak (Orkoiengo San Miguel ikastetxearena kasu, D eredua irekitzeko eskaera egiten baitu behin eta berriro). Gobernuak zonifikazioa bultzatzen ari da; hau da, auzo guztietan D eredua eskaintzeko orde, auzo batzuetan soilik eskaintzen du. Ondorioz, zentro batzuk gainezka egiten ari dira.

Gurasoen eta gizarteko hainbat elkarte eta eragileen nahiak ez ditu betetzen. Baina horiek ez dira nekatu. Hainbat mobilizazio eta adierazpen egin dituzte, etsi gabe, zentroen egoera larria salatuz. Urteak daramatzate Sortzen-Ikasbatuazeko kideek eta Sortzen-Guraso-eko aitek eta amek eskola publiko berri eta euskaldun baten alde lanean. Meritu itzela dute, gormutua den administrazioaren aurrean tinko eusten jakin dutelako. Horrela jarraitzeko indarra eman nahi diegu, inork baino hobeto baitakite lan horrek emaitzak ematen dituela.

Ezin jakin presio edo nahi sozial horrek bultzata hasi zen edo ez, baina Nafarroako Parlamentuko hizkuntz politikarako batzordea politika horri buruz aritu da eztabaidan. Zortzi hilabetez jardun dira ponentziak aurkezten eta proposamen berriak mahaigaineratzen (batzuk aurrerakoiagoak eta beste batzuk atzerakoiagoak). Zortzi hilabete, adostasunik ez lortzeko. Badirudi PSNk ez duela etsi eta mozio bat aurkeztuko duela akordio bat lortze aldera.

Oraingo, ordea, ez da adostasunik lortu eta zonifikazioak bere horretan jarraituko du. Horregatik, tinko jarraitu behar dugu lanean Nafarroako hizkuntz politikaren norabidea aldatzeko. Ezinbestekoa da euskara ofiziala izatea Nafarroa osoan eta zonifikazioa deusestetzea. Hizkuntz eskubideak giza eskubide izanik, bermatu egin behar dira. Azken batean, euskararen normalizazioa helburu duen hizkuntz politika behar da. Hori aldarrikatu behar da parlamentuan, ikastetxeetan, komunikabideetan eta kalean.

kronika

Nafarroako haur eskolen egoera nahasia bada, etorkizuna are nahasiago. Hainbat udalek herri ekimeneko lege proposamena aurkeztu dute, baina Nafarroako Parlamentuko Mahaiak atzera bota du. Proposamen horretan zera eskatzen zen: 0-3 urteko haur eskolen ardura Nafarroako Gobernuak hartzea. Herri ekimenak huts egin ondoren, hurrengo bi hilabeteetan lege proposamena egingo dute eta ekainean igorriko dute Parlamentuko Mahaira. Udaletako ordezkarien arabera, gaur egun udal guztiek ezin diote aurre egin haur eskolek eskatzen duten inbertsioari, eta eskolak dituztenentzat ere "karga" handia suposatzen du. EAEko Haurreskolak Partzuergoan, ostera, beste arazo batzuk dituzte. Bertako langileak ez daude ados Partzuergoko Zuzendaritza egiten ari den hainbat gauzeekin. Desadostasunak daude hainbat punturen inguruan: lan hitzarmena, hezitzaileen zein haurren ordutegia, lan osasuna, ikuspegi pedagogikoa...



Lanbide Heziketan berri- kuntza ugari Euskal Herri osoan

Hezkuntek Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako Lanbide Heziketa sustatzeko xedez sortutako elkarte bat da. Ikasleei Hego Euskal Herriko Dereduko lanbide eskoletan ikasteko laguntza ematen die.

Iparraldean Seaskan ikasten duten ikasleek ikasketak guztiak euskaraz egiten dituzte, baina lizeotik atera ondoren, ez dute ezer euskaraz, unibertsitatean euskal ikasketak egiten ez badiuzte bederen. Gainerako unibertsitate ikasketak eta lanbide ikasketak frantsesez baino ez dira eskaintzen.

Egoera horretan, Hezkuntek-ek teknologia ikasketak bultzatu nahi ditu. Gazteei prestakuntzan lagundu nahi die, eta bere gain hartzen dituzten ikasleentzako matrikulazio gastuak, etxebizitza edo janaria.

Badu bigarren helburu garrantzitsu bat ere: Iparraldean industria garatzea eta behar diren bitartekoak sortzea, horretarako ohiturarik ez baitago.

Ikasturte honetan bederatzi gazte ari dira Hegoaldeko lanbide eskoletan ikasten.

Nafarroan Lanbide Heziketaren ildo berriak zehaztu ditu bertako gobernuak. Espainiako Gobernua kalifikazio sistema berri bat prestatzen ari da eta horri loturik egin dute aldaketa enpresariekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin adostuta. Ikasleentzako heziketa eta kalifikazioa hobetzea du helburu aldaketak, eta lau ildo nagusi zehaztu dira horretarako: zentro integratuak osatzea ikasleentzat eta langileentzat; informazioa zabaltzeko eta aholkuak emateko bideak garatzea eta bultzatzea; enpresetako langileek duten jakintza eta trebezia maila neurtzeko eta kualifikatzeko prozesuak zehazteko bideak finkatzea.

Berrikuntzeekin jarraituz, Errenterian (Gipuzkoa) irekitako Tknika zentroa aipatu behar. Lanbide Heziketarako eta etengabeko ikaskuntzarako berrikuntza zentroa da eta erreferente bilakatu nahi du bai Euskal Herrian eta bai hemendik at ere. Informazio eta komunikazio teknologia berriak, ikerketa, berrikuntzak, ikastetxeak, enpresak, ideia berriak... izango dituzte eguneroko jardunaren ardatz.

Irakasleek egin behar dutena da ikasi, ikasi eta ikasi.

Anjeles Iztueta



Nafarroako D ereduko ikastetxeak leku arazo larriekin daude

Nafarroako Parlamentuko hizkuntza politikarako batzordea zortzi hilabetez jardun da gobernuaren hizkuntza politika aztertzen. Hainbat txosten izan dituzte esku artean, baina azkenean ez dute inolako adostasunik lortu. Horrenbestez, gauzek lehengo moduan jarraituko dute. Hala ere, PSNk mozio bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan. Ponentzia berriro martxan jarri nahi du Iruñerriko egoera eta Erriberako ikastolena soluzionatzeko.

Euskara Kultur Elkargoa etsita agertu da, politikariek ez dutelako lortu herritarren eskaerei erantzunik ematea. Hizkuntza Gutxituen Europar Bulegoarentzat frogatuta gelditu da euskara eztabaida politikoko gai bat dela. Eta Aurten Bai Fundazioaren hitzetan, “akordio zabal eta sakonaren beharra”

nabarmen ikusi da.

Bien bitartean, seme-alabentzat euskararen aldeko hautua egiten duten gurasoak gero eta gehiago dira. Datoren ikasturteko aurrematrikulazioetan islatuta gelditu da.

Orain, arazoa leku falta da, bai ikastoletan eta bai Iruñerriko eskola publikoetan. Iruñerriko ikastoletan 274 ikaslek eman dute izena, baina 225entzat baino ez dute lekua; 49 haur sare publikora bideratu beharra izan dute. Arrotxapea auzoko Patxi Larrainzar eskola publikoan 75 haurrentzako lekua eskaini dute, eta 86k eman dute izena. Antsoingo Ezkaba ikastetxean ere 75entzako lekua dago eta 93 matrikulatu dira. Arazo bera dute Txantreako Arturo Campionek eta Axular ikastolak, Sanduzelaiko ikastetxeak eta Alde Zaharreko San Frantziskok.

Nafarroako Gobernuak eman duen “irtenbidea” zera izan da: Arrotxapeako Cardenal Ilundain ikastetxean, orain arte gaztelaniazko eta ingelesezko ereduak eskaintzen zituen eskolan, euskarazko lerro bat irekitzea Patxi Larrainzarreko haurrentzat. 25 haurrentzako tokia izanen da. Patxi Larrainzarreko gurasoak, ikasleak eta irakasleak eraikin berriaren zain daude aspalditik.

Sortzen-Ikasbatuaz en iritiz “aurre-rapausotzat” jo behar da D ereduko lerro berri bat irekitzea, baina horrek ez du arazoa konpontzen.


Azpeitian gazte hizkerari buruzko jardunaldiak egin ziren hilaren hasieran Ttakun kultur elkarteak eta Urtxintxa Eskolak antolatua, eta ondorio ugari atera zituzten, bai Euskal Herri osotik joandako gazteek eta baita helduek ere. Eztabaidaren muinetako bat gazte hizkera estandarren izan zen: hizkera estandarrik edo baturik behar den ala ez. Helduek baietz uste badute ere, gazteak ez daude ados. Hizkuntza estandar moduan euskara batua hor egonik, norberak bere hizkera mantentzea aberatsagoa dela pentsatzen dute. Horren aldeko hainbat argudio dituzte: bakoitzak bere euskalkia erabilia lasaia go mintzatzen dira eta elkar ederki ulertzen dute, naturaltasunik ez dute galtzen, eta aberatsagoa da. Horri heltzearen aldekoak dira gazteak, eta horrekin gazte hizkera indartzeko apustua egin nahi dute. Horretarako, gazte hizkera sortzeko, ezagutzeko eta erabiltzeko konpromisoa agertu dute. Gazte topaketak bultzatzea egoki ikusten dute xede hori lortzeko, edo bideratzen hasteko, bederen.

Hala ere, bide horretan gainerako gizarte eragileen laguntza eskatzen dute. Administrazioei gazte hizkera bultzatzeko programak diseinatzea eta martxan jarzea eskatzen diete.

Komunikabideei kazetariak gazte hizkeran prestatzea eta hizkera hori modu naturalean erabiliiko duten telesail, aldizkari... gehiago egitea.

Eta irakaskuntzari hizkera hori zeharka lantzeko saioak, hitzaldiak eta abar bideratzea.

M-learning joan eta ikertu





Arg.: Foto Xanti

Museoak, lau hormatetik kanpora

Zarauzko Arte eta Historia Museoak *m-learning*-eko programa bat eskainiko die ikastetxei irailetik aurrera.

Ikasleak herrian barrena ikertzen jarriko ditu, puntako teknologia eskuan, arkeologiako eta artekoko inkognitei erantzuna aurkitzeko. Errotik konstruktibista den planteamendu hau posible izateko, teknologiak gaur eskaintzen dituen aukerak ikertu behar izan dituzte. EHUko Berril@ ikerketa laborategiarekin aritu dira elkarlanean.

Menosca izendatu duten proiektu honek, beraz, ate bat irekiko du aurrerantzeko programa didaktikoentzat eta museoentzat.

Zer da *m-learning* delakoa? Metodologia bat da, eta bere ezaugarri nagusia da non-nahi zabiltzala ere egoera horretan behar duzun informazioa jaso ahal izatea poltsikoko ordenagailu bati esker (“mugimenduan ikasi” litzateke *movil-learning* hitzaren esanahia). Adibide baterako, laster ikusiko dugun eszena bat: txangoan Santimamiñeko kobazuloetara joan, eta gidaria etorri aurretik ikasleek sakeletik pantaila aterako dute, GPSko mapa digitalean kobazuloak markatu, eta hormairudiei buruzko testuak edo azalpenezko bideoak jaitziko dituztesaretik. Gero, makina berarekin argazki digitala aterataleki, bideoz grabatu irakaslea pasabide estuan kabituz ezinik, gidariaren “txapa” audioan hartu, eta patrikara ordenagailua, berriz ere.

Hori dena teknologikoki posible da gaur PDA edo poltsikoan eramateko moduko ordenagailuei esker (uhinen bidez funtzionatzen dutenak). Laster denek izango omen dugu halako bat poltsikoan, telefono mugikorrekin gertatu zen bezala. Hori dela-eta, informazio-komunikaziorako tresna berri honen zer aplikazio izan ditzakeen ikertzen ari dira, une honetan, mundu osoan.

Zarauzko Arte eta Historia Museoan m-learning-eko programa ikastetxeentzat zabalik

Hezkuntzan nola ateratu zukua teknologia mugikorri? Mundu mailan erreferente izango den programa berri-tzaile bat Zarauzko Arte eta Historia Museoaren ekimenez sortu da.

Zarauzko Arte eta Historia Museoak bere ondarearen dibulgazioa egiteko, ikastetxei heziketa programak eskaini izan dizkie urtetan; programa horiek Arazi S.Coop. formazio enpresak antolatzen ditu. Arazi formazio enpresaren erronka zera izan da: nola sortu arkeologia lantzeko heziketa programa bat, teknologiak gaur eskaintzen dituen aukeren bidez. EHUko Irakasle Eskolara jo, eta Berril@ bikerketa taldeak lagundu die ideia gauzatzeko (Berril@ b Hezkuntza Berrikuntza eta Teknologia Berrien Laborategia da). Proiektua diruz lagundu dutenak, berriz, EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Zarauzko Udala dira. Hiru urte joan dira hasi zirenetik, eta inplementazio fasean sartu dira oraintsu. Zarautz bertako ikastetxeak ari dira programa esperimentatzen. Emaitza guztiak onak badira, datorren irailean bertan irekiko dizkiete ateak Euskal Herriko ikastetxe guztiei.



Arg.: Zarauzko Arte eta Historia Museoak



Menosca: erromatarrek utzi zuten testigantza bakarra

Erromatarrek gure herriarekin izan zuten harremanaren berri testu klasikoetan soilik aurki zitekeen orain arte. Estrabonek, Pliniok eta Ptolomeok euskal kostalde honetan tribu batzuk bazirela aipatzen zuten.



Arg.: Foto Xanti

Baina hortik aurrera, aztarnarik ez. Historiako mito zahar batek dio, erromatarrek ez zirela hemen izan; ez omen zuten euskal "Asterix" eta "Obelix"-ak garaitzerik izan.

Zarautzen azaldu diren aztarnek hankaz gora bota dute mitoa: 9.000 zeramika zati aurkitu dituzte, Erromatar zuzenak direnak, Santa Maria elizaren azpian. Aztarna horiei esker, Pliniok bere testuetan aipatzen zuen Menosca, barduluena kostaldeko herria, kokatu ahal izan dute: Ernio mendiak eta Urola eta Oria ibaiek osatzen duten triangeluan.

Erromatar aztarnak eta eskultura garaikideak ikergai

Zarauzko Arte eta Historia Museora datozen ikastetxeek bi ibilbide izango dituzte aukeran: historiaren ibilbidea (Burdin Aroko aztarnak, Erromatarren garaikoak eta Erdi Arokoak baitaude herrian), edota artearen ibilbidea (museoaz gain, Zarautz eskulturen herria baita).

Ibilbidea bata zein bestea izan, ikasprozesua bera da. Hiru memento bereizten dira programa didaktikoan: lehenik, Zarautzera joan aurretik eskolan egin beharreko aurre-lana. Bigarrenik, Zarautzen egingo duten kanpo lana. Eta hirugarrenik, eskolara bueltatzean jasotako informazioarekin egingo duten lana.

Eskolan, Interneten www.menosca.com gunean sartu eta bertan hasiko dira programa didaktikoa lantzen. Ikasleei pantailan agertuko zaie zer ikasprozesu burutuko duten, zer rol hartu beharko duten (ikerlari rola ala artista rola), zer lan eskatuko zaien prozesuaren amaieran eta nola ebaluatuko den (ikaslea uneoro bere ikasprozesuren kontziente izan dadin bilatuz). Eta aurre-ezagutzak aktibatuko dira, ikastear daudenari sarrera bat eginez. Horretarako, Interneten hainbat informazio jasotzeko dute, bilaketa gidatuaren bidez (web orri batzuk gomendatuko zaizkie Interneteko *mare magnum* horretan gal ez daitezen).

Behin Zarautzera joanda, museoan bilduko dira lehenik, eta gero taldeka jarrita, PDA edo poltsikoko ordenagailuak hartu, eta kanpo lana egin beharko dute: azken lana egiteko beharko duten informazioaren bila aterako dira. Pantailan GPSak azalduko die zer non dagoen. Behin intereseko lekura iritsita, datu bilketa nola egin jakiteko PDAk eskainiko dizkie orientabideak ("grabatu halakori elkarrizketa", edo "jaso topatzen duzuen bideoz", edo "begiratu eskultura honi buruzko informazioa halako helbidetan"). Ibilbidean zehar, beraz, ikasleek kanpo lana egingo dute, informazioa jasoz audioan, irudian zein testuan. Bukaeran aztarna-

tegia bisitatuko dute museoaren egoitzan.

Eskolara itzulita, tokian jasotako informazio hori manipulatu beharko dute azken lana osatzeko: power pointean historiari buruzko azalpena prestatu, edota arte-lanetan oinarrituta katalogo turistiko bat osatu. Ikasleen lan guztiak, gainera, museoaren web orrian jarriko dira. Ikastetxeek museoaren berrelikatuko dute, beraz, ikuspegiaren mosaiko bat osatuz. Izan ere, ikasleentzat zenbaitetan interesgarriagoa gerta daiteke ondareaz beren adineko batek egiten duen irakurketa, museoaren azalpenak baino. Artistentzat ere gauza handia da euren eskulturen aurrean ikasleek zer inpresio jasotzen duten jakitea.

Pedagogikoki irekitzen dituen aukerak: konstruktibismoa praktikara eramatea

Heziketa proiektu honen abiapuntua testuinguru erreala eta esanguratsuak sortzea da, bertan ikasten dena aipagarria izan dadin. Scribner (1986) autoreak dioen bezala, edozein ikasketaren eraginkorragoan baita testuingurua

Ikasketan prozesua konstruktibismoaren erroretan oinarrituko da: ikasleak ikerle bihurtuko dira, eta lekuan bertan arakatu beharko dute, jasotako informazio guztiarekin ezagutza eraikitzeko.

G

G A I A

M-learning

joan eta ikertu

PDA: patrikako ordenagailua

Zer da? PDA (Personal Digital Assistant), izatez, agenda elektronikoa bat da, baina orain 3 urteko edozein ordenagailu arruntek adinako kapazitatea duena, baita haiek adina ezaugarri eta konektatzeko gaitasuna ere. Horregatik eman zaie "poltsikoko ordenagailu" edo "esku-koko ordenagailu" izena.



Aparailu bakarrak honako hauek izan ditzake: ordenagailuko programak, interneta, telefonoa, argazki kamera, audio grabagailua, bideo grabagailua, GPS, agenda, egutegia...

Wifi sistema: kablerik gabe funtzionatzen du PDAk, uhinen bidez. Beraz, PDA batekin Internetera konektatu ahal izateko, ezinbestekoa da zauden tokian wifi sistemako antena bat egotea. Gaur wifi antenak leku gutxitan dauden arren, laster toki denetan jarri ta egongo dira.

Prezioak: 200-800 euro bitartean kosta daiteke, prestazioen eta etxearen arabera. Denen patrikan, laster. Telefono mugikorarekin gertatu zen bezala, hilabete batzuk barru PDA ere ia biztanle guztien patrikan egongo dela aurreikusten dute.

errealan denean, bertan ikasten denagure oinarriko ezagutzen zati bihurtzen denelako. Horretarako, proiektua erromatarrek "Menosca" bataiatu zuten lekuan kokatu dute: Gipuzkoako Oria eta Urola ibaien artean, hegoalderantz Pagoeta eta Ernio gailurrekin mugatuz (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orío eta Aia herriak biltzen dituela). Lurralde geografiko eta sozial honek bi dimentsio hartuko ditu: batetik edukia izango da (bertako ondarea izango da aztergai), eta bestetik ikas-toki izango da (espazio fisiko horretan bertan egingo dira jarduerak eta bertan eraikiko da ezagutza).

Ikasketa prozesua, berriz, konstruktibismoaren erroetan oinarrituko da: ikasleak ikerle bihurtuko dira, eta lekuan bertan arakatu beharko dute, jasotako informazio guztiarekin ezagutza eraikitzeko. Beraz, ikasten ikasiko dute, ezagutza zientifikoa eraikitzeko bidea berregingo dute. Teknologiarene funtzioa, prozesu hori bideratzea eta eraztea izango da.

Etorkizuneko museoak: lurralde-museoak

Museoaren kontzeptua erabat aldatuko da teknologia berriek eskaintzen duten aukerari esker. Izan ere, kultur elementuak lau horma artean sartzeak soilik ez du zentzurik izango, posible denean elementu horiek bere testuinguru naturalean ikustea (herrian edo kokatuta dagoen lekuan bertan), eta gainera, elementu horien informazioa ere zuzenean jasoko dugunean poltsi-

koko ordenagailutik (azalpen bideoak, testuak edo audioak jasoko ditugu saretik, pantailako mapa digitalean elementu hori seinalatzen dugunean). Hortaz, etorkizunean museoaren hormatan soilik sartuko da bestela behatu ezin den ondarea. Museoak erlikien kaxa izatetik, bere lurraldeko ondarearen dinamizatzaile izatera pasako da, eta ondarearen interpretazioaren bidez lurraldean garapen soziala eta biztanleen bizi kalitatea hobetzea izango da bere erronka.

"Lurralde-Museoa" izena eman zaio kontzeptzio berri horri bi zentzugatik: batetik, zentzu fisikoan, lurralde geografiko bat hormarik gabeko museo erraldoi bihurtzen duelako biztanle eta guzti, etengabeko mugimenduan eraldatzen dena. Eta bestetik, kudeaketa egitura den aldetik, lurralde-museoa garapen sustengarriko prozesuak zuzentzeko gai izango delako, ondarea nola erabili kudeatuz eta lurraldearen interpretaziorako estrategia bat martxan jarritz.

IKASTETXEEI ZABALIK

Irailetik aurrera ireki nahi dizkiete ateak ikastetxe guztiei.

Zarauzko Arte eta Historia Museoa.

Tel.: 943 835 281

Kontaktua: *Juanjo Aranburu*

Informazio gehiago:

www.menosca.com

“IKTak eskolan erabiltzeko muga irakaskuntzaz dagoen kontzepzioa da”



Alex IBA EZ, Estitxu JIMENEZ de ABERASTURI,
Joxemi CORREA

BERRILab-eko kideak (EHko Hezkuntza Berrikuntza eta Teknologia Berrien Laborategia).

Teknologia berrien adiktoak dira gaurko gaztetxoak. Zaletasun hori ikasketa prozesurako baliatu nahi izan duzue...

J. Aberasturi.- Mugikorra ikasle guztiak erabiltzen dute DBHn, eta gu baino azkarrago. Teknologia berriekin ez dute arazorik. Eta gantxoa izan daiteke eurek kontaktu zuzena duten tresna hori ikasteko baliatzea. Lagunei argazkiak ateratzeko erabali beharrean, informazioa biltzeko, gordetzeko, manipulatzeke... erabiliko dute. Joko moduan, baina ikasteko, azkenean.

Correa.- “*M-learning*-ak ikasleen errendimendua hobetzen omen duela eta, ikerketak egiten ari dira. Teknologia errendimenduan eragiten duen zerbait badu (motibazioa bultzatzen duela, edo ikasteko prozesuak errazten dituela, edo ez dakit zer den zehazki).

Teknologia gaur ikas-prozesuetan eskaintzen dituen aukerak ez dira

oraindik eskolara eraman behar beste.

Correa.- “Eskolan ikasten ikasi behar dela esaten dugu beti, edota ikasi bizitza osoan zehar egin behar dela. Teknologia asko errazten ditu prozesu horiek, baina muga batekin egiten dugu topo: irakaskuntzaz dagoen kontzeptioarekin, eta hori eguneroko aktibitateetan islatzen da.

Eskolak traba pila bat du teknologia benetan dakarren berrikuntza onartzeko. Kontua ez baita teknologia sartzea soilik, curriculumean hainbat gauza aldatu behar dira. Eskatzen du planteatzea haurrak eskoletan zertarako dauden, irakaslearen papera zein izan daitekeen teknologia berriei esker, eta ikasleen papera zein izango den, protagonismoa nori eman, zer-nolako ekintzak planteatu... .

Ibañez.- Azken finean, teknologia edukia den bitartean, ez da teknologia erabiltzen edukiak lantzeko, eta hori da arazoa. Guretzat gakoa da eskura dau-

kagun teknologia erabiltzea, horrela edukiak lantzeko. Kasu honetan, *m-learning*-eko teknologia puntakoa da, baina era berean eskura dago, ez da maineriatzen zaila edo ekonomikoki lortu ezinezkoa.

PDA izeneko aparailua erabiliko dute Zarautz museora joaten diren ikasleek. Tresna hori irakasle gehienek ez dute ezagutzen; horrek atzera eginarazten die ala ez?

J. Aberasturi.- Nik beldur hori baneukan, baina kontrakoa izan da, eskolak animatu egin dira. Gainera, esker-tzen dute berritasuna, ikasleentzat ere oso erakargarria izango dela ikusten dutelako.

Ibañez.- Irakasleen jarrera asko aldatu da lau urteren barruan. Gaur irakasleek gehiago dakite teknologiaz, baina, gainera, ikasi dute onartzen ikasleek eurek baino gehiago dakitela aparailuez, eta hori ez dela arazo bat; alderantziz, gelan ikasleek laguntzen badi-zute, orduan eta hobeto. Gaurko ikasle-

Ibañez: “Irakasleen jarrera asko aldatu da lau urteren barruan. Gaur irakasleek gehiago dakite teknologiaz, baina, gainera, ikasi dute onartzen ikasleek eurek baino gehiago dakitela aparailuez, eta hori ez dela arazo bat”



ek guk baino mugikor hobeak dituzte, prestazio gehiagorekin, eta gainera, prestazio horiei etekina ateratzen diete, saltseatzeko denbora eta ikasteko kuriositatea daukatelako. Irakasleak ulertu behar du teknologia berrietan ere soilik beharrezkoa zaiona hartu behar duela, eta gainerakoak ez ditu zertan jakin ere, dena ezin baita menderatu.

Museoek eskaintzen dituzten hezkuntza programak eskolen curriculumean txertatzeak zer garrantzia du?

Correa.- Eskolari gauza pila bat eskatzen diogu, eta eskola ezin da denera iritsi. Curriculumeko hainbat alor oso modu erakargarrian landu daitezke, beste hezkuntza eragile horiei esker (museoak, interpretazio zentroak...). Dibulgazioan eta heziketa programatan Zarauzko Arte eta Historia Museoak eskolarekiko duen jarrera mirestekoa da. Eta Zarauzko herriarentzat ere oso baliotsua da halako esperientzia bat muntatuta edukitzea.

Ibañez.- Azkenean, museoak egiten duen hezkuntza programa hori, eskola curriculumeko parte bihurtzen da. Alegia, zikloa ondo itxita gelditzen da: ez da museoak eskaini egiten duela eta kito, baizik eta eskolak beregain hartzen duela. Sistema horri esker eskolak lan ikaragarri kentzen du gainetik. Gaur egun beste hezkuntza eragileen eskaintza oso zabala da, eta eskolak nor joan aukeratu egin behar du bere curriculumaren arabera edota landu nahi duen gaiaren arabera.

Correa.- Eta garrantzitsua dena: museoentzat askoz errazagoa izan daiteke teknologia sartzea eta berrikuntza aktibitateak planteatzea, eskolarentzat baino. Museoen helburuetako bat dibulgazioa baita, eta jendearengana iris-

teko behartuta daude aktibitate erakargarriak eskaintzera, zerbait berria, puntakoa eskaintzera. Beraz, aurrerantzean ere halako heziketa esperientzia berritzaileak museoetatik bidera daitezke.

Alde horretatik ere, Zarauzko Arte eta Historia Museoak *m-learning*-ean esperimentatzeko egin duen apustua ez da museo guztietan topa daitekeen zerbait. Beste museoetan oso erlikia aberatsak egongo dira akaso, baina ez dituzte halako heziketa programak muntatzen, agian museo horien une gorena ez delako iritsi oraindik. Nik usate behin esperientzia batzuk martxan jarrita, hemendik aurrera asko zabalduko direla beste museoetara ere.

***M-learning*-ean oinarritutako programa erreferenteak European daude, baina oso programa gutxi garatu dira oraindik. Zuen ekarpen handia izango da, beraz; erreferente bat, mundu mailan ere.**

Ibañez.- *M-learning*-a garatu gabe dago oraindik. Gu orain 3 urte hasi ginen artikulu batzuk irakurri eta esanaz: "hauxe da egin nahi duguna". Baina hau dena ez da gu inbentatzen ari garen zerbait ere; nonbaitetik ideia batzuk dabilta hara-hona, eta pentsatzen dut mundu guztian ari direla teknologia berriek dituzten aplikazio posibleak pentsatzen, eta laster perretxikoak bezala aterako direla gauza diferenteak, baina era berean, oso antzekoak direnak.

Correa.- Jada ahaztuta daukagu, baina orain 6 urte nahiko arraroa zen unitate didaktikoak egiteko Interneta erabiltzea. Teknologikoki ordurako posible zen, eta erraza zen berez, baina aplikazio hori garatu gabe zegoen oraindik. *M-learning*-arekin berdin

Correa:
"Museoen helburuetako bat dibulgazioa da, eta jendearengana iristera behartuta daude aktibitate erakargarriak eskainiz. Beraz, horrelako heziketa esperientzia berritzaileak museoetatik bidera daitezke"

gertatzen da: orain ari gara mugikorrak, PDAk, wiffiak ikusten, eta hemendik hilabete batzuetara jende guztia horiek erabiltzen hasiko da, eta normalena izango da.

Ibañez.- Gu EHUko ikerketa talde bat gara, eta hain justu unibertsitatearen helburuak etorriko den horren gainean lan egitea, esperimentatzea izan behar du; horretan datza ikerkuntza. Behin gauzak martxan jartzen direnean, horiek garatuko dituzten enpresak ez dira faltako.

Gure kasuan, teknologia berrietan oinarritzen den heziketa programa hau bukatzen dugunean, prestatuta egongo gara (eta Zarauzko Arte eta Historia Museoa ere prestatuta egongo da) datozen aldaketei oso baldintza onetan aurre egiteko.

Eskolaren erronka berriak

informazioaren gizartean



EHUko Berril@-eko eta Arazi enpresako kideak

Derrigorrezko eskolaldian herritarak zein oinarrizko ikasketa egin behar dituen erabakitzea da egungo eskolaren erronkarik nagusienetako bat; hau da, gain-informazioaren garaian curriculumaren hautaketa eta sekuentzia egitea.

Derrigorrezko eskola orokortu zenetik, diziplina akademikoetan oinarritutako curriculuma proposatu izan da. Aukera horren alde egin zuten hezkuntza sistemarik gehienek, nahiz eta arazo asko zekartzan.

Zer muga ditu diziplinazko curriculumak?

Diziplinazko planteamenduek garrantzi handiegia ematen diote jakintza purista eta abstraktuari, eta horrek gizarte arazoak alde batera uztea dakar. Orokorrean, diziplinazko curriculumak:

- Botere zentro batetik irakaskuntza kontrolatzea errazten du (administratziotik, zuzendaritzatik). Horrek, gizarte eta kultur errealitate desberdinak kontuan hartzea zailtzen du.

- Irakasleen lanean eta paperean oinarritzen da ia erabat.

- Akademikoki ondo egokitutako jendearengan pentsatzen du eta beste gaitasun mota bateko ikasleen errekonozimendua eta balorazioa zailtzen ditu.

- Ez ditu kontuan hartzen ikasleen izaerak eta interesak.

- Errealitatearen errepresentazio zatitua aurkezten du.

- Gerturatze pedagogiko instruktiboegia eta erreproduzitzaileria erabiltzen du, alde aurretik testu liburuek eta irakasleek liseritutako informaziotik abiatuta.

“Naturalizat” hartzen den curriculumaren kontzepzio errota horrek galazten ditu paradigma pedagogiko berriak eta IKTak planifikazioan erabiltzea eta praktikan jartzea.

Curriculum integratuaren ikuspegiak, zer aukera eta zer arrisku dakartza?

Curriculum integratua txertatzen duten eskolek artxipiologo izateari utzi nahi diote, diziplinek, sailen antolamenduek eta ordutegiak zatitutako uharte izateari utzi, isolamendu hori gaindituta ikasleen alde jartzeko eta ez haien kontra. Curriculum integratua ez da baztertzaila, ez baitu eskolako jakintza ordenatzeko modu bakar bat markatzen.

Ikasleei bizitza errealeko arazoetatik abiatuta ikertzen erakutsi nahi zaie. Ikasleak prozedurak lantzen ditu azkenean egiten ikasteko eta pentsatzen ikasteko, hori izango baitaio lagungarri bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko. Testuinguru horretan, IKTek, informazioa tratatzeko erreminta indartsu diren aldetik, balio hezitzaile eta prestatzaile hartzen dute. Eta, batik bat, eskolako jakintza eguneratzeko klabea dira, baita ikasle bakoitzak errealitatearen esparru askotarikoak arakatzeko

Garrantzitsua da informazio iturriak erabiltzen jakitea, eta horretarako bidea errazten dute IKTek

beharrezkoa duen oinarritzko "aldamioa" eskaintzeko ere.

Curriculum integratuaren aldeko arrazoi psikopedagogikoak hauek dira:

- Ikasleak ez du espezializazio terminoetan pentsatzen. Errealitateko galdera ulargarriei erantzuten dieten diziplina arteko gaiak gertuago daude pentsatzeko modutik, diziplinen norabide bakarrek bilaketatik baino.

- Proiektuek eta gai didaktikoen arazoak delineatzen dituzte. Arazo horiek, diziplina partikularretan kokatu beharrean, hainbat materiataz aztertu beharrekoak dira, edota diziplina beraren "ikuspegi" anitzetan oinarrituta.

- Proiektuek tarte zabalagoa uzten diote ikasleek ekindako ikasketari. Ikasleak hobeto jarrai dezake bere erritmoa, diziplina partikular baten egituraren presiopean sentitu gabe, jakin behar denaren alde aurreko antolamendu sekuentziatu baten menpe egon gabe.

Curriculum integratuak irakaskuntzaren kontzeptzioan eta kudeaketan dituen ondorioak

- Elkarlanean arituko den irakasle talde bat behar da. Gainera, ez dago alde aurretik egindako lanik eta horrek irakasleentzat lan gehiago sortzen du.

- Irakaslearen papera ikasleen laguntzaile izatea da eta neutrala izaten saiatu beharko du, ikasleak bere ikuspuntuak jarri ahal izateko, bereziki gai gorabeheratsuetan eta erantzun jakinik ez dutenetan.

- Espazioak eta denborak dimensio berria hartzen dute. Ikastetxe barruaren eta kanpoaren arteko hesi fisikoak pitzatzen dira ikasketa inguru dibertsifikatuak diseinatzean. Eskola ordutegiak ez du zertan 60 minutuko eskoletan zatitua egonik: behar beste denbora eskainiko diete proposatutako lanei. Gelak ikasketa gune izateari utziko dio eta taldeek lekuri egokienean egingo dute lana: liburutegian, laborategian, informatika gelan... Ikastetxe-ko espazio-denboraren barne eta kan-

poko horma erori egingo da, ikasleak etxean jarrai dezakeelako ikerketa lana egiten, duen informazioa itsastean.

- Izaera guztiz instruktiboko materialek garrantzia galtzen dute; hala nola ikasleari mozteko, itsasteko, gogortzeko edota aurrez memorizatutako formulak txertatzeko soilik eskatzen dieten testu liburuek edo ariketa orriek. Curriculum integratuaren xedea baita lan proiektuen bidez ikasleek informazioa erabiltzea benetako arazoei aurre egiteko (informazioa hautatuz, interpretatuz eta jakintza bihurtuz). Horregatik da garrantzitsua informazio iturriak erabiltzen jakitea: liburuak, aldizkako argitalpenak, datu baseak, ikusentzunezko dokumentuak... Eta horietarako bidea errazten dute IKTek.

- Ebaluazioak utzi behar dio ikasleari zer egiteko gai den erakusten, benetan ikasi duena adierazten. Horretarako ez dira ebaluazio sistemarik egokiak baleko erantzun bakarra duten galderatan oinarritzen direnak.

Curriculum integratura pasatzeko prozesua nola egin behar litzateke?

- Estamentu guztiek hartu beharko lukete parte berrikuntzarako elkarrizketa prozesu batean: administrazioak, ikastetxeetako zuzendaritzak, irakasleek, ikasleek eta familiek.

- Administrazioak konfiantza gehiago jarri beharko luke eskolen autonomian.

- Zuzendaritzak ikastetxearen planifikazio integrala planteatu beharko luke, non kontuan izango lirakeen ikasketa espazioen dibertsifikazioak eta IKTen erabilera intentsiboak eskatuko lituzketen antolamendu dimentsioak.

- Irakasleek gaitasun eta ezagu-

IKTak erabilia hezkuntzak hobera egiteko, gauza askok aldatu beharko dute. Horietako asko irakasleen esku daude, baina beste asko irakasleen erabaki ahalmentik at daude

tza pedagogikoak garatu beharko lituzkete, euren "informazio transmisore" paperetik "ikasleen ikasketa erraztaile eta orientatzaile" paperera pasa ahal izateko. Prestakuntza prozesu horretan, paper garrantzitsua hartzen du IKTak erabiltzeko teknikak eta erabilerari buruzko gogoeta pedagogikoak.

- Irakleari laguntzeko moduko ikasketa inguruak jarri behar litzazkioke, ikasketa prozesuan bere arduraren jabe izan dadin eta ikasteko arazoak bilatzearen garrantziaz jabe dadin.

- Zentroak ikasketa komunitate bihurtu behar lirake, eta sendiek seme-alaben heziketarako laguntza eta orientazioa bertan izango lukete; era berean, gurasoek parte-hartze handiagoa eta arduratsua izango lukete eskolako ikasketetan.

Bukatzeko, IKTak erabilia hezkuntzak hobera egiteko, gauza askok aldatu beharko dute. Horietako asko irakasleen esku daude: egungo eskolan duten papera eta ardura birplanteatu beharko dute. Baina beste gauza asko irakasleen erabakitzeko ahalmentik at daude, ikastetxearen zuzendaritzaren, administrazioaren eta gizartearen beraren esku.

G A I A
M-learning
joan eta ikertu

G

frei betto

Idazlea eta hezkuntzan aditua



Hezkuntzaren helburua ez da
gaitasunak dituzten profesionalak
sortzea, gizon eta emakume
zorientsuak egitea baizik



Telebista gure gaitasunak gehitzeko tresna bat da berez, baina gure gizarte kapitalistan beste helburu baterako erabiltzen da: gure kontzientzia eta gure espiritua hazten dituen kultura gutxiago igortzen du eta denbora-pasa gehiago. Entretanimenduak ez dio kontzientziari hitz egiten, ez dio espirituari hitz egiten

Frei Betto Brasilgo Belo Horizonte hirian jaio zen 1944an. 1965ean domingotar ordenatu zen. Lau urte geroago, agintari militarren aurka aritzeagatik atxilotu zuten eta lau urte igaro zituen espetxean. Garai hartan idatzitakoagatik egin zen ospetsu nazioartean.

Hainbat liburu argitaratu ditu, saiakera eta artikulugariren egilea da eta 40renbat opera ere idatzi ditu. Askatasunerako teologoa izanik, oinarritzko komunitateetan lanean aritu izan da Sao Paulon.

Hezkuntzan, herritarren hezkuntza ezagutu du, beti ere Paulo Freireren ondoan.

Brasilgo ekintza kulturean eta politikoan oso ezaguna da. Langileen alderdiko (PT) kide da eta Lularen, egungo presidentearen, aholkularia eta laguna.

Gaur egun Progetto Fame Zero mugimendu sozialeko koordinatzailea da.

Otsailaren 25, 26 eta 27an Forum Social per l'«Educaci a Catalunya burutu zen Barzelonan. Bertan izan zen Frei Betto eta harekin hitz egiteko aukera izan genuen.

Nolakoa izan behar du hezkuntzak globalizazio garai hauetan?

Globalizazio garai hauetan hezkuntzaz hitz egiteko, lehendabizi globalizazioa zer den eta zer hezkuntza motaz hitz egiten dugun zehaztu behar da.

Globalizazioak zera ekarri du: AEBko lau hiritarrek 600 milioi biztanle elkartzten dituzten 42 herrialdek baino aberastasun handiagoa edukitzea. Eta horrek ez du diru pilaketa soilik ekartzten, baizik eta aberastasun handiagoa diren ezagutza, zientzia eta informazioa ere batzuen eskuetan biltzea eta pilatzea.

Globalizazioak aniztasuna babestu behar du. Guretzat egungo globalizazioa globokolonizazioa da, gizarte eredu baten inposaketa, Kanadan, AEBn eta Mendebaldeko European nagusi den ereduaren inposaketa. Globalitarismoa ere deitzen diogu, inperialismoa baino askoz ere indartsuagoa den totalitarismo eredu berri bat, hain zuzen ere. Erromatar Inperioak, esate baterako, bere probintzietako kultura errespetatu zuen, eta gauza bera gertatu zen Palestinan Jesusen garaian. Baina totalitarismoak ez du inongo kulturarik errespetatzen, berea inposatzen du eta kito. Menperatutako herrien kultura irensteko gai da.

Aldaketa handien garaian gaude. Zein ikuspegi duzu horri dagokionez?

XV.-XVI. mendeaz geroztik, aldaketa garaia ez, baizik eta garaiez aldatzea bizitzen ari den lehen belaunaldia gara. Mende haietan feudalismotik kapitalismorako aldaketa gertatu zen, Erdi Arotik Aro Modernora. Orain modernitateetik postmodernitateera edo ez dakit zertara igarotzen ari gara.

Modernitatea bukatu da. Beste testuinguru bat dago orain eta mundu berri bat eraikitzen ari da. Testuinguru berri horretan hezkuntzaren gaineko gogoeta egin behar dugu. Nire ustez, mundu berri hori ez da hegemonien eta adostasunen mundu bat izango, baizik eta dibertsitateen, aniztasunen eta desberdintasunen mundua. Eta horrek

aberastu egingo gaitu, baldin eta justizian eta maitasunean oinarritutako giza duintasunean euskarri bat eraikitzea lortzen badugu. Horiek dira bakea lortzeko baldintzak.

Nola jokatu behar dugu egoera honen aurrean?

Kolonizatutako mundu batean hitz egin behar dugu hezkuntzaz, eta hor hezkuntza atzera egiteko tresna da. Zuek haurra familian hezitzen duzue. Eskolan familiako balioekin bat egiten duten balioak lantzen dira. Elizan ere gauza bera gertatzen da. Baina haurra etxera itzultzen denean eta telebista pizten duenean, zer heziketa mota ari da jasotzen telebistaren aurrean 3-4 ordu pasatzen baditu? Heziketa ezin du gu eskolara mugatu. Heziketa gure buruan, gure espirituan, gure gorputzean, sentsazioen bidez eta ez nozioen bidez sartzen diren ohitura, balio eta gaitasunen multzoa da. Telebista horretarako tresna bat da berez, baina gure gizarte kapitalistetan beste helburu baterako erabiltzen da: gure kontzientzia eta gure espiritua hazten dituen kultura gutxiago igortzen du eta denbora-pasa gehiago. Entretanimenduak ez dio kontzientziari hitz egiten, ez dio espirituari hitz egiten.

Zein da desberdintasuna? Zein ondorio dakartzat?

Kulturak pentsarazi egiten digu, giza duintasuna edukiarazten digu eta gure subjektibitatea elikatzen du. Denbora-pasak kontsumismo konpultsibora bultzatzen gaitu, hain zuzen ere ez digulako pentsatzen eta kritikoak izaten uzten. Orduan, kapitalismoaren etapa neoliberallean globalizatutako mundu batean bizi gara. Nola hezitzen dugu? Gaur egun hezitzea merkatuak bultzatzen duen atzerantzko heziketa bortitzaren prozesuari aurre egitea da. Entretanimendu mota guztien merkantilizazio bat dago. Are gehiago, eskolaren merkantilizazioa ere badago, zeren MMEk (Munduko Merkataritza Erakundeak) jada proposatu zuen eskola salgai bihurtzea. Hala balitz, hezkuntza



ez litzateke gizarteak haurrekiko edukiko lukeen behar bat, ez litzateke izango estatuak bere hiritarrekiko edukiko lukeen behar bat, baizik eta ordaindu ahal izango lukeenarentzako zerbitzu bat. Auto bat ordain dezakeenarentzat bezala izango litzateke. Baina inoiz autorik izango ez duen jendea badago, ezin duelako ordaindu.

Monokultura bultzatzen ari al da?

Bai. Monokulturaren garaian bizi gara eta monokultura hori gizarte zurian, kontsumistan eta gizarte birtuala duen gizartean kokatuta dago. Internetek alderdi positibo asko ditu, baina jendeari errealitatea birtuala izan litekeela erakusten dio, eta hori negatiboa da. Etikako eskolatik irten eta autoan noalarik botila bat leihotik botatzen badut, etika birtuala daukat. Demokraziaren alde baldin banago, baina ikasleei nire iritziaren aurkakoak diren iritziak adierazten uzten ez badiet, demokrata birtuala naiz. Birtualitate hori gero eta gehiago sartzen ari da gazteen artean, eta errealitatea eta birtualitatea nahasten ditu.

Monokultura horrek gizakiaren historia bukatu egin dela pentsarazi nahi digu. Eta hori dena merkatua aktibo mantendu behar duen kapitalismo perfektuago batekin.

Zuek konturatu al zarete European deseuropeizazio prozesu bat bizitzen ari zaretela? Pentsatu al duzue urte gutxiaren buruan kontinente hau ez dela "tipikoki" europarra izango?

Monokulturaren prozesuak ez al du kultura aniztasunaren lana zailtzen?

Bizitzaren historikotasunaren monokultura prozesua daukagu. Hori neoliberalismoaren ezaugarrietako bat da. Nire belaunaldira arte, heziketa denboraren ardatza, Historia, kontuan hartuta egiten zen. Historiaren pertzepzio hori duenak gaitasun handiagoa du balioak sortzeko, bere bizitzan epe luzeko proiektuak egiteko, bizitza positiboa egiteko, familia eraikitzeko, bizitza profesionala eraikitzeko... Zinemak eta telebistak sartutako zirkularitateak historikotasun hori hautsi egin du. Zeren zinemak eta telebistak denboraren sekuentzia nahasten baitute; dena da orain eta hemen. Ez daukagu harremanik denbora errealarekin. Kolore askotako beirazko leiho batean, bakoitzak beira zehatz bat ikusten du, baina ez bere osotasuna. Ez da bere osotasunean hautematen, zinemak eta telebistak denboraren pertzepzio historikoa puskatu dutelako.

Ezin dugu pentsatu herri guztientzat balioko duten utopiak edo parametro unibertsalak daudenik, XX. mendaren erdialdera arte pentsatu zen bezala. Aniztasun etiko-kulturalarekin batera bizi behar dugu eta hiritartasuna eta demokrazia garatzea posible izango den mundua eraikitzeko moduak aurkitu behar ditugu. Elkartasuna sortzea eta partekatzea lortu behar dugu. Daukagun arazorik handiena desberdintasun soziala da. 11.000 milioi aho elika-

Globalizaziari
aurre egiteko bere
testuinguruan
kokatutako heziketa
kritikoa behar dugu.
Geografiako orduan ez
dugu ikasi behar
munduko herrialdeak
non dauden soilik,
baita ere Korea
zergatik dagoen bitan
zatituta,
Latinoamerikan
zergatik hitz egiten
diren iberiar
hizkuntzak...
Irakaskuntza
testuinguruarekin lotu
behar da

tzeko adina janari dugu, eta munduko biztanle kopuru osoa ez da kopuru horren erdira ere iristen (5.000-6.000 milioi biztanle gara). Orduan, ez gara gehiegi, ez dago janari faltarik, justizia falta baizik.

Transnazionalen diru kontuak gizontzeko antolatuta dago dena. Munduan heriotza gehien eragiten duten lau faktoreen aurrean oso sentsibilizaturik gaude, baina ez da gauza bera gertatzen bosgarren faktorearekin, eta horrek eragiten ditu heriotza gehien. Aipatu lau faktoreak hauek dira: lan eta trafiko istripuak, IHESA, minbizia eta antzeko gaixotasunak, gerrak eta terrorismoa. Lau faktore horiek eragiten duten heriotza kopurua ez da iristen gosearen biktimen erdira ere. Zergatik mobilizatzen gara hainbeste lau horien artean eta ez gosegatik? Arrazoi sinple batetik: lau horietako inork ez duelako klaseen arabera banaketarik egiten eta goseak bai. Miserableak bakarrik hiltzen dira gosez, eta horrek gu ez gaitu ukitzen. Aldiz, gutako edozein hil daiteke beste lau faktore horietakoren batengatik.

Non gelditzen da aniztasuna? Nola bidera daiteke?

Hezkuntzaz hitz egiten baldin badugu, aniztasunaz hitz egin behar dugu. Ni bost urtez bizi izan naiz Brasilgo Espiritu Santuko favela batean. Han mediku talde bat zegoen eta lehenengo haurdunaldian zeuden emakumeei

laguntzen zien. Haurrak nola zaindu behar zituzten erakusten saiatzen ziren. Baina sendagileek hizkuntza batean hitz egiten zuten, eta emakumeek beste batean. Komunikazio arazo bat zegoen. Gainera, medikuek hizkuntza akademikoa erabiltzen zuten eta emakumeak oso behartsuak ziren, faveletakoak.

Komunikazio arazoaren muina zein zen aztertzeko deitu zidaten. Faveletan zeuden kartel guztiak Johnson produktuenak, haur holandarrenak, daniarrenak, europarrenak, ile horienak, begi urdindunenak... ziren. Medikuek batek amei bularra ematen eta produktu industrialak ez erabiltzen erakusten zien. Ama bati galdetu nion ea planteatu zitzaiena ulertu zuen. Ezetz erantzun zidan, ulertu zuen bakarria izan zela bere esnea haurraren elikadurarako ona zela. "Eta zergatik ez duzu ulertu?", galdetu nion. Ez zuela ikasketarik erantzun zidan, behin baino ez zela joan eskolara bere bizitza osoan.

Sendagileari galdetu nion ea sukaldean ba al zekien eta ezetz erantzun zidan. Ama hura, ordea, edozer jakipretatzeko gai zen. Altxatu eta oilaskoa saltan nola prestatzen zen azaldu zigun. Memento batean errezeta eman zigun.

Eta biak oihanean galduko balira? Medikua gosez hilko litzateke, eta emakumea segur aski ez. Horrekin zera esan nahi dut: inor ez dagoela beste inor baino baxuago. Kultura askotariakoak daude eta sozialki bateragarriak



dira. Ni ez naiz eskolan denbora gutxi pasa duen emakume sukaldaria baino kultuagoa Sao Pauloko Unibertsitatean irakasle izateagatik. Hura gai da nire kulturarik gabe bizitzeko, eta ni, aldiz, ez bererik gabe. Zientzia asko dakizkien bati autoa hondatzen baldin bazaio kalearen erdian, zer egin ez dakie-la gelditzen da. Eta telebistak funtzionatzen ez dionean berdin.

Baina kontziente al gara anitzasun horren balioaz?

Desberdintasunak errespetatu behar dira, ez desberdintasunetatik desadostasunak sortu. Estatu espainiarrak jatorri arabiarak ditu, eta gaur egun, espainiar askok arabiarra den guztia terrorista dela uste du; terrorista birtuala, noski.

Onartu behar den deseuropeizazio prozesu bat dago. Zer zentzu dauka globalizazioak harresi gehiago sortzea? Kultura askotariko eta ikuspegi anitzeko jendeari mugitzea eragotziko dioten hormak ezin dira egin, horrek mugatzen baitu gizaki izatea eta duintasuna edukitzea.

Zer da zuretzat duintasuna edukitzea?

Agian guretzat orain eta hemen, Europan eta Brasilen duintasuna edukitzea giza eskubideak bermatuta edukitzea da. Baina agian hindu batentzat duintasuna edukitzea sinergia kosmikoa edukitzea izango da. Edo txinatar batentzat oposaketetatik oreka lortzea izango da. Duintasuna ulertzeko modu asko daude.

Apaiz bat Hegoafrikara joan zen eta aitortzera joan zen gizon bati zenbat emazte zituen galdetu zion. Hark bi zituela erantzun zion. Orduan, apaizak ezin zuela bedeinkatu esan zion, bere bizitza konpondu behar zuela eta bi emaztetatik bat aukeratu. Gizona bi emakumeekin eta atzean seme-alaba mordobat zituelaitzuli zen apaizaren etxera eta apaizari bat aukeratzen laguntzeko eskatu zion. Apaiza holandarra zen eta ez zuen ulertzen klan hartan emazte bakarra edukitzea ihes egitea,



berekoia izatea eta klanaren hedapenean ez laguntzea zela.

Nelson Mandela klan horretakoa zen eta haren autobiografian agertzen denez, haren aitak lau emazte zituen eta bakoitzarekin urtean hiru hilabete bizitzen zen. Nelson Mandelaren galdera zen ea haietako zein maite zuen gehien. Hiltzera zihoan unera arte ez zuen jakin, bere amari etxean hiltzera zetorrela esan zion arte.

Kultura askotarikoak daudela onartzen ikasi behar dugu eta kultura ez dagoela herrietan soilik, baizik eta gutako bakoitzaren berezitasunetan ere bai.

Heziketa zapaltzaileak, heziketa mekanizistak, heziketa arrazionalistegiak gure berezitasuna ezabatzeke arriskua du. Horregatik, globalizazio horri aurre egiteko bere testuinguruan kokatutako heziketa kritikoa behar dugu. Biologiako orduan ez dugu soilik landareak nola hazten diren aztertu behar; Kiotoko protokoloaz ere hitz egin behar da eta aztertu AEBk zergatik ez duten sinatu ituna. Geografiako orduan ez dugu ikasi behar munduko herrialdeak non dauden soilik, baita ere Korea zergatik dagoen bitan zatituta, Poloniak zergatik izan dituen ingurune geografiko desberdinak bere historian, Latinoamerikan zergatik hitz egiten diren iberiar hizkuntzak... Irakaskuntza testuinguruarekin lotu behar da.

Nola definituko zenuke hezikuntza?

Niretzat hezkuntza gizakiak zoriontsu egiteko arma politiko bat da. Niretzat hori da hezkuntzaren xedea. Ez da gaitasunak dituzten profesionalak sortzeko, baizik eta gizon eta emakume zoriontsuak egiteko.

Zein izango lirateke gaur egun hezkuntzaren gakoak?

Nire iritziz, ikastetxe bakoitzean honako hau azterzea eta eztabaidatzea izango litzateke: balio nagusitzat lehia-kortasuna duen munduan elkartasunarako hezteak zer esan nahi duen. Zer esan nahi du sormenerako hezteak guk oraindik bankuko heziketa praktikatzen baldin badugu? Nik nire ikasleen buruetan ezarriko dudana kultura bat dut. Orduan, nire ikasleen buruetan nire ezagutzak eta balioak pilatzen ditut. Nola eraman dezaket gela barrura hainbeste gorai patzen dugun demokrazia? Nola bihur ditzakegu ikasleak irakas-kuntzako protagonista? Paulo Freirek esaten zuen inork ez duela inor hezitzen. Nik, hezitzaile naizen aldetik, hezitzen laguntzen dut eta beraiek, aldi berean, hezitzen laguntzen didate. Heziketa prozesua beti hezitzaileen heziketaren eta berreziketaren arteko elkarrreragina da.

Zer esan nahi du politikoki hezteak?

Gero eta gazte gehiagok alboratzen du politika. Politika baztertzeko dutenek jakin behar dute parte hartzen dutenek

Marrazteko
dohaina edukiko
banu eta eskolara
doan autobus bat
marraztu beharko
banu, haurren
buruak soilik
marraztuko nituzke.
Zergatik ota
gorputza eskolara?
Ez dauka zereginik
han

gobernatzen dituztela. Eta gehiengoak politikan ez badu parte hartzen, demokrazia bukatu egingo da.

Gure bizitzako xehetasun guztiak politika dira. Goizean goiz hartzen dugun gosaritik hasi eta oporren kalitatea, erretiroa baldintza onetan hartzerik izango ote dugun... dena politikatik pasatzen da. Arazoa da demokrazia bera ere birtuala dela. Mendebaldeko demokrazia ordezpenean oinarritutakoa da, eta ez da parte-hartzailea. Hiritar gisa, gure erantzukizunak aukeratzen ditugun politikoen esku uzten ditugu, baina gero eta urrutiago daude, gero eta birtualagoak dira. Aitzitik, parte hartu, ekin, eztabaidatu, proposatu... egiten badugu, demokrazia erreal bat egiten ariko gara, demokratikoagoa, demokrazia parte-hartzailea.

Nola ulertzen duzu generoan oinarritutako heziketa?

Profil sexual eta afektibo guztiak errespetatzen dituen heziketa da. Nire garaian eskolan ez zen sexuaz hitz egiten, tabua zen. Gaur egun, eskola askotan heziketa sexualaz hitz egiten dute. Edonola ere, uste dut gorputzaren garbitasunari eta zainketari buruz gehiago hitz egiten dela sexualitateaz baino.

Baina oraindik ez dut aurkitu maitasunaz hitz egiten duen eskolarik. Maitasunean oinarritutako heziketa. Jende guztiak bizitzen du bizitzako uneren

batean beste pertsona batekiko maitasun erlazio bat eta denek inprobisatu egin behar izaten dute. Denek bidea asmatu behar dute, inork ez baitie bere esperientzien berri eman. Badago bere jendea ezkontzarako prestatzen duen instituzio bat, eliza katolikoa, baina aipatutako heziketarik ez du nahi bere ki-deentzat.

Heziketa unibertsalean pentsatu behar al dugu?

Bai, beharrezkoa da, ez ingurunea babesteko, baizik eta giro osoa, totala. Hau da, naturak guk bere gain egiten dugunaren arabera erreakzionatzen du. Horri buruz hausnartu behar dugu.

Jaten dugunean, bai barazkiak, bai arroza, bai okela... natura jaten dugu gure bizitza bermatzeko. Eukaristi lotura daukagu naturarekin. Datozen belaunaldi guztiak Lurraren ondasunak edukitzeko eskubidea dute. Horregatik diot heziketa unibertsalean pentsatu behar dugula.

Zer esan nahi du heziketa integralak?

Niretzat buruaren, gorputzaren eta espirituaren arteko elkarreragina da. Orokorrean Mendebaldeko heziketa kartesianoegia da. Marrazteko dohaina edukiko banu eta eskolara doan autobus bat marraztu beharko banu, haurren buruak soilik marraztuko nituzke.





Zergatik doa gorputza eskolara? Ez dauka zereginik han.

Badago oso arrazionala ez den jendea, baina oso azkarra dena. Brasilen ezagutzen dut alfabetatu gabeko jendea, baina oso azkarra dena. Adimena hitzak "barrutik irakurtzeko gai izatea" esan nahi du. Badago beste pertsonaie-
do egoerei begiratura asko ikasten duen jendea, bere adimena dela-eta. Heziketak errealitatea bere dimentsio guztietan hautemateko balio behar du, ez du arrazoian soilik oinarritu behar, baita emozioetan, sentimenduetan, intuizioan, pertzepzio estetikoan eta abar ere. Atrofiatuta dauzkagun dimentsioak dira. Eta nola atrofiatu dira? Publizitate kapitalistak dimentsio horiei ematen dien erabileragatik.

Irudiaren garaian gaude. Eskolan ematen al zaio behar adinako garrantzirik?

Ez dago testu libururik erabiltzen ez duen eskolarik. Orduan, zergatik ez dira lantzen telebistako irudiak ere? Zergatik ez dira aztertzen iragarkiak? Begiak soilik hezitzen direlako. Eztabaida sortzen den unetik, eztabaida bera da aldentze kritikoa sortzeko baldintzak ematen dituen. Eta horrelakorik ez da egiten. Ez dut ulertzen ikastetxeak zergatik ez diren sartu oraindik irudiaren garaian.

Heziketa eta espiritualtasuna. Zer lotura ikusten duzu bien artean?

Gorputzaren, buruaren eta espirituaren heziketa egin behar da. Heziketak gure espiritualtasuna lantzen lagundu behar digu. Espiritualtasun horrek ez du derrigorrez erlijiozkotasuna esan nahi. Ni erlijio katolikoaren alderdi batekin ados nago: bizitza erlijiosoaren gauzarik garrantzitsuena ez da fedea izatea, jarrera maitekorra edukitzea baizik. Hori da Jesusen funtsezko irakaspena. Berdin du pertsona horrek federik ez edukitzea.

Nik dakidala Jesusek mirariak egiten zituenean ez zion inori esaten "sendatuko zaitut, baina lehendabizi nire federa atxiki behar duzu". Jesusek inoiz

ez du jartzen laguntzeko baldintzatzat fede bera partekatzea. Zeren bere bizitzarekin, bere praktikarekin ematen baitzuen Jainkoaren mezuaren berri.

Beraz, konfesionaltasuna ez, espiritualtasuna bai.

Orain dela 20 urte Fidel Castorri galdetu nion ea Kubako Alderdi Komunista zergatik zen konfesionala. Harrituta begiratu ninduen eta halaxe erantzun zidan: gu ere konfesionalak gara, ateak gara. "Horrexegatik, Jainkoaren existentzia baieztatzea edo ezeztatzea konfesionaltasuna da". Orduetik aurrera, kubatar estatua laikoia da.

Eskola publikoko heziketak laikoia izan behar du. Hezkuntza ezin da konfesionalizatu. Heziketa ezin da erabili jarrera ideologiko konkretu bat hedatzeko. Oso garrantzitsua da ikasle guztiek tradizio eta esperientzia erlijiosoak ezagutzea. Sinestezina da unibertsitatera iristen den ikasle batek Biblia edo Korana irakurri gabe edukitzea edo bere herriko tradizioak ez ezagutzea. Adibidez, Brasilen tradizio afro-brasilarrak. Zeren Nigeriaren, ondoren munduko bigarren nazio beltza baikara.

Eskola publikoak hori guztia bizitu behar du. Ez du apaizak azaldu behar kristautasuna, edo musulmanak islamismoa, edo besteak espiritualtasuna. Ez. Eskolan fede hori babesten duten pertsonak baldin badaude, horiek planteatu behar dute. Ebanjelizazioa gazteek eta irakasleek egiten dute beraien bizitzako testigantzen berri eman ez, eta ez erlijioak predikatuz. Zeren denak errespetatu behar dira, eta gainerakoek inongo erlijiorik ez izateko eskubidea dute.

Eskola konfesionaletan bai, horietan irakatsi behar da erlijioa. Niretzat ez dira berdinak eskola konfesional bat, pribatua, eskola katoliko bat, eta sendagaiak saltzen dituen enpresa komertzial bat. Nire ustez, eskola katolikoak ebanjelizatzeke zentro bat izan behar du, irakasleek ariketa espiritualak egin behar dituzte, eta ikasleek ere bai. Eta ez dute diru publikorik jaso behar, partaide diren erlijio komunitatek baizik.

Zer esango zenuke hezkuntza antolaketari buruz?

Nik uste dut hezkuntzak publikoa eta doakoa izan behar duela. Ez nago eskola pribatuaren aurka, baina estatuaren betebeharra da denei hezkuntza publikoa eta doakoa bermatzea.

Heziketa beharrezkoa da desberdintasun sozialak berdintzen laguntzeko.

Bere funtzionamendua edonola delarik ere, publikoa berez ona dela uste al duzu?

Publikoa unibertsala da. Denona da. Publikoa ez da pribatua baino hobea. Ni txikia nintzenean, Brasilen klase sozial ertainak eta altuak haurrak eskola publikora bidali nahi zituzten. Gaur egun, ostera, eskola pribatua nahi dute euren seme-alabentzat. Hiritarren betebeharra da zerbitzu publikoak hobea izan daitezen presio egitea. Ezin dugu onartu eskubide sozial guztiak pribatizatzea.

Zein mezu bidaliko zenieke hezitzaileei?

Hezitzeko garaian, pentsa dezatela gizakiaren duintasunean, zintzotasunerako eskubidean, aniztasunean, norberaren kulturaren, denok planeta honetakoak garela, denok familia bat garela, eta ez giza familia soilik, familia holistikoa baizik, naturarekiko loturan bizi garelako.

Zer dio gorputzak hezitzen ari garenean?



Axier HUEGUN

Pedagogian doktorea

EHLko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien

Fakultateko irakaslea

Artikulu honetan egilearen doktorego tesiaren laburpena irakur dezakegu. Lau urte iraun zuen ikerketak hezitzaileak praktikarako prestatzea zuen xede nagusi; horretarako, hezitzaile bakoitzaren gorputz sententzioetan arreta jarritz. Izan ere, hezkuntza praktikan hezitzailearen eta hezigaiaren arteko aurrez aurreko kontaktua sortzen da, non bakoitzaren dimentsio kognitiboa, emozionala eta gorputz jarrera agertzen diren. Gauzak horrela, hezitzaileen oinarriko gaitasunetako bat heziketa une

bakoitzaren beharretara egokitzea da, eta hezigaiarekin praktikan duen erlazio horren kalitateak egingo du bere lana pedagogikoa izatea.

Horren haritik, eta arotzak bere lana ongi burutu ahal izateko hainbat tresna behar dituen moduan, hezitzaileak hainbat trebetasun agertzen ditu praktikan. Ikerketa honetan harremanetarako trebetasun horien gainerako karakterizazio global eta integrala egin zen, bost harreman trebetasun barmebiltzen zituen eredu erabiliz. Trebetasun horiek errealitate praktikora egokitzeko joerak dira, eta hezitzaileak egiten duen interpretazioaren arabera, trebetasun bat edo bestea agertuko du memento praktikoan. Kontuan hartu behar da harreman trebetasun horiek norberaren berezko joeraeratan automatizatuta daudela gorputzaren bitartez. Hor-taz, gorputzak eta bere sententzioak ikasbide bikainak dira harreman trebetasunen prestatuntzarako.

Heziketa jarduera praktikoa eta harremanezkoa da

Lan honetan 14 hezitzailearen harreman trebetasunen prestakuntza da ikergai nagusia. Hezitzaile horiek aisialdiko heziketaren barruan kokatutako hizkuntz normalizazio proiektu batean aritu dira lanean urtebetez, 14 eta 16 urte bitarteko gazteekin, hain zuzen ere. Egitasmoa Gipuzkoako sei herritan garatu da aldi berean. Hezitzaileekin aurrera eramandako prestakuntza lanak bi fase izan ditu: lehenengoa, gazteekin heziketa lana egiten hasi aurretik; eta bigarrena, gazteekin hezkuntza funtzioa betetzen ari ziren bitartean.

Hezitzailearen harreman trebetasunak eta ezaugarri pertsonalak heziketa ekintza betetzen ari den memento praktiko eta harremanezko horretan bertan agertzen dira modu batera edo bestera. Izan ere, heziketaren funtza egoera jakin baten une praktikoan agertzen da, eta memento horretan hezitzailearen eta hezigaiaren arteko el-karreragina eta topaketa aktiboa praktiaren erdigunea dira. Heziketa formalean, ez-formalaren eta informalaren arteko desberdintasunez haratago, badute hirurek ezaugarri komun bat: hezitzailearen eta hezigaiaren artean aurrez aurreko kontaktu bat sortzen dela. Erlazio horren kalitateak egiten du hezitzailearen lana pedagogikoa izatea edo ez, hartu eman horretan intentzio handiagoa erakusten baitute hezitzaileak.

Edozein hezitzailearen oinarriko gaitasunetako bat heziketa une bakoitzaren beharretara egokitzea da, kontuan izanik hezitzaileak eta hezigaiak elkarreragiten duten une bakoitzaren ezaugarriak desberdinak direla. Egoera praktikoko bakoitzak esanahiz-jositako elementuen eremu aberatsa du. Elementu horien artean daude hezitzailearen zein hezigaiaren egoera afektiboa eta emozionala; eta biak elkartzen dituen egoera zehatza, zeina giro emozional zehatz batek bideratutako arauak osatzen duten. Horregatik, hezikuntza ekintzan aurrez aurreko kontaktua pertsonalaren bidez, *elkarri eragiten* dioten pertsonak daudela diogu. Horrela, une horretan ez dira hezitzailearen teoriak eta ezagutza teknikoak soilik jartzen agerian, aitzitik, *osotasun* bezala agertzen da, hots, bere dimentsio arrazionala, egoera emozionala eta gorputz-jarrera aldi berean agertzen dira. Era berean, heziketa uena *praktikoa* ere bada, heziketa erlazioa orainaldiko denboran adierazten baita; hau da, elkarreragin osoa *orain eta hemen* gertatzen da. Orain eta hemen horrek, iraganak baldintzatuta dagoenak eta etorkizunari begira proiektatzen denak, hezitzailearen eta hezigaiaren arteko erlazioan gauzatzen den oro hartzen du bere gain; une horretan, leku horretan eta pertsona horrekin gaudela konturatzearen esperientzia da.

Horregatik guztiagatik diogu **heziketa** unean hezitzailearen teoriak eta teknikak adina indar dutela haren ezaugarri pertsonalek, eta horiek hezigaiarekiko harremanean eragiten dutela. Hala ere, teoria eta teknika pedagogikoak beharrezkoak dira hezitzailearen zereginen: hala elkarreraginaren aurreko programazioak, nola ondorengo hausnarketak, heziketa lanaren zati dira. Lehenengoaren bitartez, hezitzaileak bere helburuak lortzeko jarraitu behar dituen pausoak ordenatu eta sekuentziatzen ditu. Bigarrenarekin, ondorioak ateratzen ditu eta bere praktika berrantolatzen du, hobetze aldera. Edonola ere, hori guztia ez da nahikoa izango hezigaiarekiko erla-

zioan sortzen diren arazoei irtenbidea emateko. Izan ere, aurre egin beharretako arazo horiek praktikokoak izango dira, “egin behar denari” buruzkoak. Beraz, hezitzaileak hezigaiarekin elkarreraginean dagoen une berean eta zerbait eginez eman beharko die irtenbidea.

Praktikarako harreman trebetasunak

Beste pertsonekin erlazionatzen garenean, elkarren osagarri diren bost trebetasun daude, gutxienez. Trebetasun horiek baliatuz, hezitzailearen harreman trebetasunen karakterizazio global eta integral bat osatu dugu. Hezitzailearen jokaeratzat hartu ditugu, eta **egoteko, jarduteko, bat egiteko, bereizteko eta berezkotasunerako aukera ematen diote jokaerok.**

1. Lehenengo trebetasuna “egon” kontzeptuarekin erlazionatutako alderdiekin lotzen dugu. Trebetasun honek oinarria, egonkortasuna eta sostengua ematen dizkio hezitzaileari. Besteari entzuteko joera da, baita besteenganako konfiantza agertzeko eta eraman handikoa izateko joera ere bai. Trebetasun honek mugarik ez duenean, gehiegizko konformismoa, geldotasuna eta nagikeria agertzen zaizkio pertsonari. Aldiz, trebetasuna modu orekatuan agertzen denean, hezitzaileak unean unekoari arreta lasaia eskaintzen dio, eta bere ingurunean giro lasaia eta egonkorra sortzen du.

2. Nabarmentzen dugun bigarren

Heziketa ekintza betetzen ari den mementoan agertzen dira hezitzailearen harreman trebetasunak

trebetasuna “jardun” kontzeptuarekin lotzen dugu. Aurrera egiteko nahia eta grina dira trebetasun honen oinarriko printzipioak. Helburudun mugimendurako eta ekintzarako joera agertzen du trebetasun hau eskuragarri duenak. Gehiegizko indarrarekin agertzen denean, ekintzaren zurrunbiloak hartuta egoten da pertsona, eta gehiegizko grina eta gogo bizia agertzen du gauzak berak nahi bezala gerta daitezen. Aitzitik, “jarduna” orekatua denean, besteen mugimenduetarako espazioa uzten du, eta bere indarrak modu estrategikoan erregulatzen ditu.

3. Hirugarren harreman trebetasuna hauxe da: besteekin edo identifikatzen garen ideiarekin edo objektuekin “bat egitera” garamatzana. Berau bizi-egi agertzen denean kanpoko objektue-



Hezitzaileen prestakuntzak aintzat hartu behar ditu haien bizipenak eta gorputz sentsazioak, eta horiek dira proposatzen den ikasbide esperientzialaren oinarria

kiko nahiz subjektuekiko neurritz kanpoko identifikazioagatik, nor bere betebeharrak eta oinarritzko beharrak alboratzea dakar. Modu orekatuan agertzen denean, ostera, pertsona inguruko egoera emozionalaz arduratzen da bene-benetan, eta enpatiarako, komunikaziorako eta gertutasunerako joera erakusten du.

4. Laugarrena “bereizi” kontzeptuarekin erlazonatutako alderdiekin lotzen dugu. Honi esker, muga argiak ezartzen ditugu, baita gauzak egituratu eta ordenatu ere. Gaitasun hau gehiegi agertzeak kontrolarekiko, sistematiza-

zioarekiko eta argitasunarekiko obsesioa ekar lezake. Aldiz, modu orekatuan agertzean, beharrezkoa den distantzia ezarriko du, argitasunaren, mugen eta arauen bitartez; betiere, malgutasunez. Modu horretan, trebetasun honen bidez, subjektua seguru sentitzen da osatzen eta egituratzen duen eremuan.

5. Bosgarren trebetasuna “berezkotasuna”rekin lotzen dugu. Trebetasun honek planifikatu gabeko mugimendura garamatza. Gaitasun honen gehiegikeriak, jokaera irrazionalera eta oldarkorrera eramaten du pertsona. Trebetasun hau bere neurrian agertzean, ostera, sormenari eta berria eta freskoa denari ateak irekitzen dizkio. Modu horretan, berritasunerako, dibagaziorako eta berezkotasunerako bidean jartzen gaitu.

Horiek guztiak erlaziorako aukerak dira, denak beharrezkoak, baina ez bata bestea baino garrantzitsuagoa. Beraz, hezitzaile bat hezigaiarekin erlazonatzen denean, harreman aberatsa eta pedagogikoa osatzen duten bost alderdi horiek aintzat hartu behar ditugu. Horietako jokaera bakoitza hezitzailearen harreman trebetasun baten agerpena izango da. Denak dira beharrezkoak egoeraren eta testuinguruaren arabera. Horietako bakoitza errealitate praktikora egokitzeko tresna baliagarria da, kontuan harturik, hezkuntza testuinguruetan gertatu ohi diren ha-

rreman egoerak aldakorrak eta azkarak direla. Trebetasunok ez ditugu jokatzekeo patroik hartu behar. Aitzitik, trebetasun bat edo bestea agertzea, hezitzaileak heziketa unean bizi-tzen eta interpretatzen duenaren arabera egongo da, betiere trebetasun horiek hezitzailearen bitarteko pertsonaletan eta nortasun alderdietan eskuragarri baldin badaude.

Ikasbide esperientziala: gorputza eta sentsazioak

Lan honetan **ikasbide esperientziala** hartu dugu hezitzaileen prestakuntzarako oinarritzat, eta aipatu berri ditugun kontakturako eta harremanetarako bost forma horien garapenaren inguruan zentratu gara. **Garapen hori gorputzean eta hezitzaile bakoitzaren gorputz sentsazioetan oinarritzen da**, hori da funtsa. Erlazio forma bakoitza esperimentatzeko, **gorputz ariketez** baliatu gara, eta horrek hezitzaileei ahalbidetzen die forma bakoitza garatzeko sor litezkeen zailtasunak eta erraztasunak beraien gorputzean bizi-tzea edo esperimentatzea. Modu horretan, hezitzaile bakoitzak hezigaiarekin duen heziketa harremanean nolako joera naturalak dituen ikusi ahal izango du, hots, autodiagnostiko bat egin ahal izango du. Aldi berean, hezkuntza praktikan bertan joera defizitarioenak garatzeko aukera izanen du. Hortaz, hainbat eta hainbat gorputz ariketa garatu izan ditugu, eta horiek izan dira ikasbidearen oinarria hezitzaile bakoitzaren praktika pedagogikoarekin batera.

Besteekin erlazonatzeko eta hezkuntza praktikaren barruan egoteko esperientzia hori, beste edozein giza esperientzia bezala, gorputzaren eta sentsazioen bitartez bizitzen dugu. Gizakiok gorputzaren bidez ematen diogu forma gure esperientziari. Jatorrizko substantzia horretatik sortua da gizakion mundua. Esperientzia gorputzean kokatzen da, eta arrazoiarekin batera, esperientziaren prozesu konplexuaren osagai bat da. Gizakiarentzat sakoneko esanahia duen pentsamendu eta



ekintza orean oinarrian dago sentitzea, eta ikaste esanguratsuen erdigunea sentitze horretan dago. Horregatik guztiagatik, **hezitzaileen prestakuntzak aintzat hartu behar ditu hezigaiekiko duten esperentzian zer-nolakoak diren hezitzaileen harreman trebetasunen bizipenak eta sentsazio subjektiboak eta korporalak.** Lan honek pedagogiaren arlo horretan egin nahi du bere ekarpena. Izan ere, uste dugu hezitzailearen joera naturalak –bai emozionalak, bai korporalak, bai kognitiboak– berez agertzen direla hezkuntza-ekintzan eta ez dutela behar adinako arretarik hartzen hezitzaileen prestakuntzan. Gauzak horrela, harreman trebetasunak gorputzaren bitartez sentitzen baldin badira, hezkuntza profesionalen prestakuntza ezin da alderdi kognitiboetan soilik oinarritu. Hezigaiekin erlazonatutakoan, hezitzaileak esperentzia eta bizipen subjektibo hori gorputzaren jarrera edo molde batzuen baitan hautematen du, eta horrek modu jakin batean ekitera eta pentsatzera eramaten du. Horregatik guztiagatik, gure gorputzaren eratzeko gaitueta esan dezakegu, eta gorputzak, mugatzeaz gain, ahalbidetu egiten gaitueta. Hori horrela izanik, ikaste esanguratsuan, pentsamendua berrantolatzeko gain, sentimendu emozional bat sortzen da, esperentzia gorputzean sartua eta gorputzak bitartekatua baitago.

Ondorioak

Hezitzaileekin esku-hartzea bukatu ostean, emaitza oso positiboak eta interesgarriak eman zizkigun ikerketak. Izan ere, parte hartu zuten hezitzaile gehienek ongi ulertu baitzituzten harreman trebetasun bakoitzaren nolakotasunak, horren atzean zeuden sentsazioak sentitu zituztelako euren gorputzean. Horrek ekarri zuena zera izan zen: harreman trebetasunen eredu aplikatzea euren hezkuntza praktikan, eta esku-hartzearen kalitatea hobetzea. Hori guztia ikasbide esperientzialari esker. Prestakuntza bide honi erabat lotu zitzaizkion hezitzaileek esku-hartzearen hasieran baino ahalmen handiago

agertzen zuten praktikak eskatzen zien beharretara egokitzeko.

Ondorioz:

- Ikasbide esperientzialaren aurrean jarrera irekia izan zuten hezitzaileak, berezkoak ez zituzten trebetasunekin jokatzeko gai izan ziren hezkuntza praktikan. Egindako esperientziak erakusten du hezitzaileek bizipenen bidez harreman trebetasunak esperientziaz dituztenean, euren estiloan aldaketak izateko bidean jartzen direla.

- Hezitzaileek berezkoa ez duten estiloa ager dezakete, baldin eta haren atzetik dauden sentsazioak inoiz sentitu badituzte, ez bestela.

- Nolanahi ere, oraindik bide eraginkorragoa findu eta garatu behar da norberak oztopo nabarmenak dituen harreman trebetasunetan aurrerapausoak emateko, baita gorputz sentsazioak sentitzeko zailtasunak dituztenekin lan egiteko moduan ere. Zinez, atal hau eta ikerketa honek jarri duen oinarria eta ireki duen bidea aintzat hartuz, hemendik aurrera lantegi bihurtzen da, non harreman trebetasun bakoitza esperientziaz ahal izateko bidean gehiago sakondu eta ikertu behar den: harreman trebetasun bakoitzaren garapenerako ikasbide esperientzian sakondu, alegia. Beraz, ikerketa ildo hori irekita dago.

- Hezitzaile bakoitza prestakuntza



esperentziaren fokua izateak nor bere burua findu beharreko hezkuntza tresnatu hartzea ekarri du. Hortaz, hezitzaileen prestakuntza saioetan, atal teoriko eta teknikoaz gain, hezitzailearen eta hezigaiekin arteko elkarrekintza abiapuntutzat duen prestakuntza prozesuak sustatu behar dira, praktika pedagogikoarekin uztartuz. •



Jarrerak ere badute zeresana Zangoza ikastolan

Elgoera edo gertaera askok sortzen dute kezka eskola barruan. Zangozako ikastolako irakasleak ikasleen arteko erasoez, onarpen ezaz eta bazterketaz kezkatuta zebiltzan. Horregatik erabaki zuten otsoari belarrietatik heldu eta ikasle guztiak integartzeko eta berdinen arteko harremana bultzatzeko saiakerara sendoa egitea. Ikasturte honetan Integrazio Plana jarri dute abian.

Ikasle guztiak ez dira berdinak, eta aniztasun hori aberatsa da. “Emakume izan, ijito izan, Down sindromea eduki, beltza izan, elbarria izan edo neska edo mutila izan, balio bat da. Natura askotarikoa da, eta ez dago aniztasuna baino ezer egiazkoagorik gizakiarengan. Ez daude bi mitxoleta berdin... Gizakiaren historia aniztasunaren historia da” (López Melero, M.: *La infancia invisible*, 1998).

Haatik, elkarbizitza horretan mota askotako erlazioak sor daitezke; besteak beste, menperatzaileak eta baztertzailleak. Horrek kezkatzen zituen Zangoza ikastolako irakasleak. Ikastolan erasoak eta onarpen ezak gertatzen zirela konturatzen ziren. Ondorioz, batzuek ikastola utzi egin zuten, eta beste



batzuk ikasketetan arazoak izaten hasi ziren. Gelan beti nabarmentzen ziren protagonista izan nahi zuten ikasleak, beti besteen gainetik agertu nahi zutenak eta besteak zapaltzen zituztenak. Horiek laguntza behar zutela pentsatzen hasi ziren.

“Beti premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaie laguntza”, dio Zangoza ikastolako Fernando Trebol orientatzaileak. “Baina horien inguruan dabiltzanek ere behar izaten dute laguntza, askotan horiek baitira integrazioarako jarrerarik ez dutenak eta harreman sozialak gaiztotzen dituztenak”.

Hasierako esperientzia

Idea eta kezka horiek bultzaturik, berdinen arteko harremanak lantzen

hasi ziren duela hiru urte Haur Hezkuntzako 3. mailan, Lehen Hezkuntzako 1. eta 5. mailetan eta DBHko 1. mailan. Maila bakoitzean era askotako ekin-tzak egin zituzten gai hori lantzeko. 5 urtekoen gelan, esate baterako, betiko jardueretan erabiltzen zituzten materialak berrikusi zituzten irakasleek, eta horrela, gaiarekin lotuta zer zegoen ikusi zuten. “Marrazkiak egin zituzten denok berdinak garela ikusteko, gorputzaren ezaugarriez hitz eginez”, dio Fernandok. DBHko 1. mailan material idatzia erabili zuten gaia azaleratzeko. “Elkarrek ‘Eta, zer?’ izeneko bilduma bat badauka, eta oso egokia da. Gara egunkariak etorkinen inguruko zenbait argitalpen baditu, eta horiek ere irakurri zituzten gelan”.

Fernando Trebol orientatzailea: “Ikastolak hezkuntza integrala planteatzen du ikasle guztientzat, eta gai horiek akademikoak bezain garrantzitsuak dira”

Ikasleen artean kontzientzia maila handia lortu zuten, eta horrek gauzak aldatu egin zituen. “Ikasleak gaiari buruz hizketan hasi ziren, eta irakasleek ere informazio asko lortu zuten”. Gauzak bideratzeko modu egokia zela ikusi zuten, eta ikastola osora zabaltzeko behar zela.

Ikastola osora hedatu zen

Gainerako irakasleen eta gurasoen artean horretaz hitz egin ondoren, denek onartu zuten integrazio plana abian jartzea. Zer ekarri du horrek? Gela guztietan lantzea berdinen arteko harremana eta ebaluazio jarraitua egitea. Ikasle guztien programazioetan sartu dute plana eta beste gaitasunekin batera jarrera integratzailea duten edo ez behatuko da. Hau da, ea zein garapen maila duten elkarrekin erlazionatzeko garaian. Izan ere, 6-12 urte bitartean elkarrekintza sozialaren garapenak berebiziko garrantzia eta indarra hartzen du. Horregatik, eta horrek gizakiaren garapen orokorrean duen eragin zuzenagatik, ezinbesteko ardura eta jarraitapena eskaini behar zaiola uste dute. “Heziketa integralaren izenean lana egin nahi bada, behintzat, oso adi egon behar dugu hezitzaileok eta familiak; pertsonen adimen moten artean, bat el-

karrekiko harremanei dagokiena baita”, dio orientatzaileak.

Beraz, gainerako notekin batera, ikasleen jarrera ere agertuko da, eta besteek adinako balioa izango du.

Planaren barruan etorkinekiko harremanak, berdinen arteko onarpen ezak eta sexuen arteko harremanak hartzen dira kontuan. “Ikastolak hezkuntza integrala planteatzen du ikasle guztientzat, eta gai horiek akademikoak bezain garrantzitsuak dira”, azpimarratzen du Fernandok.

Ikasle guztiak, irakasle guztiak eta guraso guztiak daude inplikaturik, denen proiektua da, hezkuntza komunitate osoarena. Denen parte hartzea duen Batzorde Pedagogikoak egin du plana; guztiek irakurri, baloratu, kritikatu... dute.

Ikasturte hasieran irakasle guztiek gurasoei planaren nondik norakoak azaldu zizkieten, eta argi azaldu zieten gaia programazioan sartu zutela eta ikasleen txostenetan agertuko zela ikasle bakoitzaren jarrera.

Irakasle guztiak erabat inplikatu dira azpimarratzen du Fernandok, eta bera orientatzaile denez, euren laguntzen die. “Ikasleekin nola jokatu jakiteko jarraibideak eskatzen dituzte, eta baita prestakuntza ere. Zentzu horretan, soziogramak erabiltzen ikasi dugu, gelako kideen arteko harremanak nolakoak diren ikusteko balio baitute”.

Beraien artean saio ugari egiten dituzte plana nola doan ikusteko, gurasoen harremanak nolakoak den baloratzeko eta abar. Klaustro osoarentzako prestakuntza-laguntza ere eskatuta daukate Nafarroako Gobernuan.

Familiei dagokienez, Pedagogia Batzordean hiru gurasok hartzen dute parte, eta horiek arduratzen dira gainerakoei informazioa helarazteaz. Aipatutako batzordeko partaide da Petra Garces eta interesgarria bezain beharrezkoa iruditzen zaio seme-alaben jarreraren berri izatea eta horren jarraitapena egitea. “Hasieran guraso askok ez zuten hori egiteko beharrik ikusten. Harrituta hartu zuten askok, eta batzuk ez zeuden oso alde, batez ere goiko mailako gurasoak, DBHn notek eragina dutelako espedienteari begira. Eta, noski, jarreragatik batez bestekoa jaisatea ez zuten egoki ikusten batzuek”. Dena dela, hasierako harridura pasa ondoren, onartzen ari dira.

Horrez gain, planaren planteamenduak berak ere harridura sortu zuela aitortzen du Petrak. “Askori sinestezina iruditzen zaie integrazio arazoak izatea, seme-alabek beste batzuk ez dituztela onartzen sinestea eta abar. Baina, orain, ikasturtean zehar plana garatzen doan heinean eta gauzak azaldu ahala, egoera ulertzen eta onartzen ari dira”.

Informatuta egoteak gauzak erraztu egiten ditu eta irakasleen eta familien



Petra Garces gurasoa: "Interesgarria bezain beharrezkoa iruditzen zaigu seme-alaben jarreraren berri izatea eta horren jarraipena egitea"

arteko harremana arina da. Edozein gatazka edo arazo sortzen denean, elkarri jakinarazten diote eta elkarrekin ekiten diote irtenbidea bilatzeari.

Bederatzi aginduak

Irakasleek jarraibideak eskatzen dituzte. Nola lortu integrazioa ikasleen harremanetan? Zer egin? Horri erantzuteko eta lagungarri izateko bederatzi adierazle edo zeregin markatu dituzte Zangozako ikastolan. Irakaslearen behaketa lana eta ebaluazio jarraitua erraztearren zehaztu dira.

1- Ikasleen artean materialaren trukea sustatuko da.

2- Talde txikietan eta handietan lan egitea sustatuko da. Irakasleak aukeratu ditu taldekatze horiek, nahiz eta batzuetan ikasleek aukeraturakoak ere izan.

3- Lekuz aldatzea. Maiz egingo dira lekuz aldatzeak, baina betiere irakaslearen esku egongo da kontu hori.

4- Hamaiketako trukea egingo da (osasun beharrak errespetatuz).

5- Ikasle batek beste batek egin duena salatzen duenean, ez da onartuko. Beraz, ikasleen jokabide salatzailea ez da onartuko. Horrelako beste jokakera batzuk ere ez. Batez ere, besteen aurrean egiten direnak, taldeari zuzendu-

tako kontrol moduko bat direlako.

6- Jokabide desagokien aurrean ezaxolati jokatuko da; horrek ez du esan nahi kasurik egingo ez zaienik, baizik eta ez zaiela garrantzirik emango, ez dirrela azpimarratuko. Ondoko jarraibideak esanguratsuak eta adierazgarriak dira adibide gisa: beti ikasle bera da lehendabizikoa galderari erantzuten. Pertsona bera da, beti, kontaktuzun bat duena. Material, jantzi, jostailu, elikagai eta abar hobeak izateko aldirikapenak sailhestuko ditugu (ikasleen artean eta irakasleek ikasleei).

7- Gurasoen inplikazioa eskatuko da, gertatutako egoera etxean baloratzen jarraitzeko.

8- Integrazio arazoak daudenean, alde bietako familiei aldiro jakinaraziko zaie ohitura eta arau gisa.

9- Ikastolako eragile eta arduradun guztien inplikazioa beharrezko da. Beraz, arazoa sortu den gelako tutore ez diren besteen parte-hartzea ezinbesteko

koa da, beste eskola orduetan eta jolastorduetan, batez ere.



Aurrera begira itxaropentsu daude

Oraindik ikusteke dago zer emaitza emango dituen lan honek, baina orain artekoa ikusita, baikor daude guztiak. Fernando gertaera batean oinarritzen da baikortasun hori adierazteko: "5 urteko gelan bazterketak gertatu dira eta esku hartu ondoren ikasleen jarrerak aldatu egin dira. Familiari egoeraren berri eman genion eta gai horri buruz hitz egiteko bilera egingo genuela esan zitzaion. Bileran egin ondoren, gauzak bere onera itzuli ziren".


Haur Hezkuntzan indar handia jarri dute, eta ikasle horiek Lehen Hezkuntzara iristen direnean, beste jarrera batzuk edukiko dituztela uste dute. Hori espero dute, behintzat, eta horretarako ari dira lanean. •



Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak maiatza

Elkarrekin eta elkar errespetatuz bizitzen ikasteko esperientziak



Makina bat hezitzaile aritu ziren bizikidetzaren inguruko gaiak jorratzen eta aztertzen bi egunetan Gasteizko Europa jauregian. Eusko Jaurlaritzak antolatutako **Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari buruzko jardunbide egokiak trukatzeko I. jardunaldiak** izan dira eta parte-hartzaileak gogoz aritu dira.

Xedea ikastetxeetan eta hezkuntza ez-formaleko beste zentro batzuetan egiten ari diren ekimenak eta jarduerak ezagutzea izan da. Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntzako hainbat esperientzia aurkeztu dira. Guztira, eskola esparruko 15 esperientzia eta heziketa ez-formaleko beste sei, eta hori osatzeko hainbat tailer.

Zentzumeneren integrazioan esku hartzeko oinarritzko printzipioak ezagutzeko jardunaldia

Eguna: ekainak 13, astelehena
Lekua: Gasteizko Caja Vital Kutxa Fundazioko aretoa

Ordua: 16:00-20:00

Hizlaria: **Erna Imperatore Blanche.** Terapia Okupazionalen lizentziatua. Okupazio Zientzietan doktorea. Zentzumeneren integrazioan eta neurogarapenaren tratamendu eta jolasean espezializatua. AEBko Kalifornia Ekialdeko Unibertsitateko irakaslea.

Norentzat: zentzumeneren integrazioaren teorian interesa duten guztientzat (gurasoak, irakasleak, psikologoak, pedagogoak, fisioterapeutak, logopedak, medikuak, terapeuta okupazionalak...).

Izena emateko epea: ekainak 7
Informazio gehiagorako: Kulunka, Haurren Terapia Okupazionalen Zentroa

Tel.: 945 121 052 (arratsaldez)

terapiaokupazionala@yahoo.es

Orain arte zentzumeneren integrazioa bereziki osasun arlotik landu bada ere, hezkuntza esparruan ere zabaltzen hasi da. Horri buruz gehiago jakiteko aukera emango dute Euskadiko Terapia Okupazionalen Elkarteak eta Kulunka Haurren Terapia Okupazionalen Zentroak antolatu duten jardunaldiek. Ateak zabalik izango ditu interesa duen orok.

Jardunaldion helburuak hiru dira:

1.- Zentzumen sistemak ulertzea eta beraien eragina eguneroko jardueren parte hartzean.

2.- Haurren garapenean zentzumeneren integrazioaren arazoek duten eragina ulertzea.

3.- Haurrak ikastetxean eta komunitatean dituen zentzumeneren integratze arazoak identifikatzea.

Zentzumeneren integrazioa nerbio sistema zentralak gorputzeko hainbat zentzumen organok jasotako informa-

zioa interpretatu eta antolatzeko duen gaitasuna da. Garunak jasotzen dituen informazio horiek gure inguruarekin harremanetan jarri eta egokiro erantzuteko aztertu eta erabiliak dira.

Zentzumeneren integrazioaren teoria hurrek koordinazio motorean, garapenean, portaeran, ikasteko eta abar dituzten hainbat arazori emandako erantzun zientifikoa bat da. 70eko eta 80ko hamarkadetan sortu zen, Jean Ayres terapeuta okupazional iparramerikarrak neurozientzian, hezkuntzan eta psikologian egin zituen ikerketa batzuetatik abiatuz.

Teoria horrek, alde batetik zentzumeneren integrazioaren prozesua eta haurren garapen orokorrean duen eragina deskribatzen ditu. Eta bestetik, zailtasunak dituztenekin lantzeko paletak eta metodoak proposatzen ditu. Beste hainbat esku-hartzerekin osagarria izan daiteke, gainera.

Euskaldundutako irakasleei omenaldia egin zaie

“Eskolak euskaldundu” ekimenak euskaldundutako milaka eta milaka irakasle omendu ditu, euskara ikasteko eta hobetzeko egin duten ahalegina eskertuz. Zenbait pertsona ahalegin hori zalantzan jartzen ari diren une honetan, eta irakaskuntzan euskararik ez dakiten irakasleek ez dakit zer eskubide aldarrikatzen dituzten garaian, benetako esfortzua egin eta emaitzak lortu dituzten irakasle euskaldunak omendu dira. EHE, Kontseilua, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE, IA, LAB, EHBE, AEK eta Euskal Konfederazioak prestatutako omenaldian irakasle multzo osoaren ordezkarriz hartu zuten dozena bat irakasleri giltza bana eman zieten, giltzarri baitira etorkizuneko belaunaldiak euskara jakin dezaten.

“Eskolak euskaldundu” ekimeneko eragileek adierazi bezala, Euskal Herria berreuskalduntzeko lana eraginkortasunez burutzeko, derrigorrezkoa da haur eta gazte guztiek euskara ikasteko eskubidea bermatuko duen eskola. Eta hori ezinezkoa da irakasle euskaldunak gabe. Euskaldundu diren gainerako milaka hiritar askoren modura, ahalegin handia egin behar izan dute irakasle erdaldun sartu eta bidean euskaldundu direnek: dirua, denbora, ahalegina eta ilusioa inbertitu dituzte.

Igor Arroyok hitz egin zuen omenaldian bultzatzaileen izenean, eta emandako giltza gogoan, irakasleengana zuzenduz hala esan zien: “zuek kontziente zarete, irakasle eta hezitzaile izanik, zor bat, erantzukizun bat daukazuela belaunaldi berriekin eta ardura horri heldu egin diozue. Zuen burua euskaldundu egin duzue. Esku artean zenuten giltza tinko hartu eta giltza hori erabili duzue euskarari atea irekitzeko. Horregatik omendu nahi zaituztegu azken urteetan zuen burua euskalduntzeko izugarritzko ahalegina egin duzuenok”.



Dozena bat irakasle izan ziren euskaldundutako milaka irakasleren lekuko Bilbon egin zitzaizen omenaldian.

David Henderson, Galdakaoko Eguzkibegi ikastolako irakaslea mintzatu zen denen izenean, eta euskara ikastea asko kosta bazaie ere, hainbat etekin eman dizkiela azpimarratu zuen. “Gaur egun ezinezkoa ikusten dut Euskal Herrian euskararik gabe bizitzea”.

Ostaiska Pinedo Bilboko Urretxindorra ikastolako irakaslea da. 14 urterekin hasi zen institutu garaian euskara ikasten. “Orduan ez zegoen euskarako eskolarik, eta irakasle batek esan zigun, prest baldin bageunden, emango zizkigula. Arratsaldeko saioa hasi baino ordu erdi lehenago joaten ginen euskara ikastera”.

Karmele Fernandez bere lankidea da. Bulego batean lanean zebilela, 18 urterekin hobby-z hasi zen euskara ikasten. “2-3 urtez aritu nintzen eta uda batean baserri batean egon nintzen. Hala, Urretxindorra ikastolan lanean asteko eskaintza egin zidan parroikiko abadeak. Nire kasuan, euskarak giltza eman zidan lanbide hobea aurkitzeko, euskararik jakin gabe, ezingo nukeen irakaskuntzan aritu”.

Ez dira iritzi berekoak aukerak eman arren oraindik euskaraz irakaste-

ko gai ez diren 157 irakasleak. Urretxindorrako bi irakasleei lotsagarria iruditzen zaie. “Ez badute ikasi nahi edo ezin badute, aurretik esan dezatela. Baina Eusko Jaurlaritzak hainbeste diru gastatzea horrelako pertsonekin, eta gero AEK, euskararen esparruko elkarteak eta euskararen aldeko benetako apustua egin dutenak diru falta dutela ikustea onartezina da”.

Zein da irtenbidea? “Ikasi edo etxera joan daitezela, edo Espainiako ikastetxeetara joan daitezela. Euskararik ikasi nahi ez badute, ez daukagu zertan behartu, baina joan daitezela beste leku batzuetara lan egitera, eta lanpostu hori utzi euskara ikasi dutenentzat”.



“Irakasle euskaldunak zarete eskola euskaldunaren giltza” esan zitzaizen omenaldian.

Murgiltze ereduak ekarpen Estatu frantseseko hizkuntza



Kataluniako, Okzitaniako, Seaskako, Bretainiako eta Alsaziako ordezkariak euren eskualdeko egoeraren berri eman zuten jardunaldietan.

Hiru egunetan zehar Miarritzen elkartu ziren Ikastolen Elkartearen XII. jardunaldi pedagogikoetan eta ISLRF-ren jardunaldietan parte hartu zutenak. Gai nagusia hizkuntza aniztasuna izan zen, eta hainbat ikuspegitatik landu zen. Europa eraikitzen eta zabaltzen ari den garai hauetan, antolatzaileei garrantzitsua iruditu zaie hizkuntza eta kultur aniztasunari buruzko hausnarketa egitea, eta bakoitzak egin dezakeen ekarpena aurreikustea. Zentzu horretan, hizkuntza ofizialek ez ezik, ofizialki onartu gabe dauden ere ekarpen aberatsa egiten dute.

Frantziako estatuan, esate baterako, frantsesa soilik da ofizialki onartutako hizkuntza, baina horrez gain, euskara, okzitaniarra, alsaziera, bretoierra eta katalana daude. Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak dira, frantsesaren nagusitasuna dela-eta. Horregatik, hizkuntza horiek berreskuratzeko eta hizkuntza horien erabilera bultzatzeko ahaleginean urteak daramatzate hainbat eskolek eta herritarrek. Murgiltze ereduaren aldeko apustua egin dute denek, eta jardunaldietan herrialde bakoitzeko egoera eman zen ezagutzera.

Euskal Herria, Okzitania, Alsazia, Britainia eta Kataluniak ISLRF (Frantziako Hizkuntzen Goi Institutua) osatu zuten 1997an. Eskualde horietako herritarrek murgiltze ereduaren aldeko hautua egin dute haien hizkuntzaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko. Xede bera izanik, elkartu egin ziren Frantziako estatuari denek elkarrekin eskatzeko hizkuntza horien ofizialtasuna eta murgiltze ereduak.

Horrez gain, irakasleei prestakuntza hizkuntza horietan eskaintzen dute, eta zazpi urtetan zehar 268 irakasle prestatu dituzte oposaketetarako.

Okzitaniako Calandreta

Mediterraneoko arkuaren zati den eskualde honetan 700 hizkera mota, zazpi dialekto eta okzitaniarra hizkuntza elkarbizi dira. Okzitanieraren hiztunak ez dira asko eta diglosia handia da. Bertako herritarrek konstituzioaren aldaketa eskatzen dute okzitaniarra hizkuntza ofizialtzat hartua izan dadin.

Eskualdeko gurasoek erabaki zuten euren hizkuntza hezkuntza sisteman sartzea, eta horrela hasi ziren murgiltze ereduak eskolak sortzen 1979an. Baina bidea ez da erraza. Eskolak sortzea ez da erraza, eraikinen jabetzarik

ez dutelako eta horrek eraikinak mantentzeko eta finantziatzeko zailtasunak sortzen dizkie.

Haurrek hizkuntzarekin ez ezik kulturarekin ere harremana edukitzea garrantzitsutzat jotzen dute. Hizkuntzarekiko harremanak goiztiarra, intentsitate handikoa eta ezagutza lortzeko adinako iraupenekoa izan behar du.

Kataluniako Bressola

1976an sortu zuen katalanezko lehen eskola Bressola elkarteak. Gaur egun zazpi eskola eta kolegio bat dituzte. Eskola horiek dauden herrietan, beraien dira handienak. Ziur daude herri gehiagotan egotea lortuko balute, ikasle kopurua hazi egingo litzatekeela. Gaur egun duten muga bakarra eskolen garapena da.

Murgiltze ereduak eskola horien helburua katalana talde hizkuntza izatea da, talde baten komunikazio bidea eta elkarren arteko lotura izatea. Zentzu horretan, erabilera sustatzeari garrantzi handia ematen diote. Gaur egun, ikasleen %2k soilik egiten du katalanez etxean.

Eskola horiek antolaketa bertikala dute: ikasle handiagoei txikiagoei irakasten diete katalanez.

garrantzitsua egin dezakete gutxiuetako hezkuntza esperientziak bizirik

Bretainiako Diwan

Bretoiera desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntzako bat da, eta gaur egun mantentzen bada, eskoletan egin den lanagatik da. Gizartearen eskareren ondorioz sortu ziren Diwan eskolak, lehenengoa 1977an. Egun, eskola eta ikasle gehien biltzen dituen eskualdea da. Azkenekoa Parisen ireki dute, eta beraien lanaren erakusleho izango dela uste dute.

Horrez gain, hiru elkarte satellite dituzte, hots, eskolaz kanpoko ekintzak bretoieraz antolatzen dituzten elkarteak. Diwanen barruan daude, baina autonomoak dira. Gurasoentzako barne-tegiak ere badituzte.

Estatuarekin egindako akordioen oinarrian beti existentzia egon da, baina eurak haratago joan nahi dute; hazkunde nahi dute. Azken helburua bizitza soziala bretoieraz egitea da, nahiz eta jakin zaila dela. Izan ere, ikasleekin gurunean frantsesa baino ez dute entzuten, eta zaila da motibazioa izatea.

Alsaziako ABCM

Eskualdeko hizkuntzetan irakasten duten ikastetxeen arduratzen diren elkarten artean, ABCM da berriena. 1991n ireki zen lehen ikastetxea. Atzerapen horren arrazoi historikoetako bat zera da: eskualde hori Alemaniari atxikita egon zela behin eta berriro. Eta eskualdeko hizkuntzaren aldeko militantzia ere geroago garatu zen.

ABCMk zera esan nahi du: *association pour le bilinguisme dès la classe de maternelle*, hau da, eskolaurretik hasita elebitasuna bultzatzeko elkarteak. Izan ere, garai hartan, Hezkuntza Nazionalak zioen ez zela beharrezkoa elebitasunarekin hastea Oinarrizko Hezkuntza arte. ABCMko militanteek, ordea, eskolaurreko lehen mailatik ekin behar zitzaizkion.



ABCM eskoletan ordutegi paritate zorrotzarekin hasi ziren, baina pixkanaka germanikoari (alemanari edo alsazierari) ordu gehiago ematen joan dira, gizartearen frantsesak duen nagusitasuna eskolak oreka dezan.

Elkarte honen helburua da murgilketa indartzea, eta bereziki 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan eskolak irekitzea. Azken xedea haurren % 30-40 bi irakaskuntza sistemetako batean eskolatzea da.

Euskal Herriko Seaska

35 urteko ibilbidearen ondoren, hizkuntza egoera asko okertu da: familiako transmisioa ia desagertu egin da. Gaur egun, euskararen transmisioa eskolan hasten da.

Horren jakitun izatearekin batera, Seaskak hainbat lorpen bideratu ditu: euskara transmititzeko sistema koherente eta eraginkorra garatu du; ongi ezagutzen du garapenaren arloa; hainbat sarearen barruan dago, eta hori aberasgarria da; euskal kultura eta euskara hedatzen lagundu du.

Etorkizunari begira, hainbat hausnarketa eta proiektu ditu esku artean, besteak beste: nazioarteko gelak garatzeko proiektua, euskal curriculumak garatzeko konpromisoa, Iparnet.net proiektuari esker beste federazio batzuekiko harreman pedagogikoak aberastu egingo dira; eta irakaskuntza teknikoan Hezkuntek eta Euskal Herriko Laborantza Ganbararekin elkarlanean aritzeko prestutasuna du.

Eskualdea	Hezkuntza elkarteak	Eskolak	Kolegioak	Lizeoak	Ikasleak
Euskal Herria	Seaska	20	3	2	2.129
Okzitania	Calandreta	41	1		2.063
Katalunia	Bressola	7	1		520
Alsazia	ABCM	18			1.028
Bretainia	Diwan	33	3	1	2.834

Argitalpenak



Mintzairaren miraria
Xabier Monasterio Torre
GAIK

Liburu honetan mintzaira zer den erraz ulertzeko oinarritzko kontzeptuak garatzen dira: mintzamenaren sorrera, zeinuen garrantzia komunikazioan, mintzairaren funtzioak eta osagaiak... Horrekin batera, soziologiarekin loturiko gaiak ere aztertzen dira: hizkuntza aniztasuna, mintzaira eta kultura, jendeen eta herrien hizkuntza eskubideak, euskararen mundu ikuskerak...



Argitxo kriseiluaren bila
Mahai jolasa
IKASTOLEN ELKARTEA

“De oca a oca y tiro por que me toca” esaldia beste batez ordezkatzeko aukera ematen du joko honek: “Argitxotik argitxora eta berriro botatzera”. Ohiko “oca” jokoaren euskarazko bertsioa da hau, eta garrantzi berezia hartzen du hizkuntza lantzeak. Horregatik, fitxak mugitzen direnean esaldiak esateari garrantzi handia ematen zaio. Esaera zaharrak eta errimadun esaldiak proposatzen dira hor •



Eskolara ez agertzea gainditzearen inguruko jardunaldietako ondorioak
ADARRA

2004ko azaroan gai horri buruzko jardunaldiak antolatu zituen Adarra Pedagogi Erakundeak. Orain, liburuxka labur eta mamitsu batean bildu ditu han ateratako ondorioak. Jende asko kezkatzen duen gaia da ikasleak eskolara ez agertzea. Ehuneko txikia da egoera horretan dagoena, baina derrigorrezko hezkuntzako azken urteetan ehuneko hori igo egiten da •



Nemesioren itzala
Pako Aristi
ELKAR

Nemesioren itzala korrika joan da, baina Nemesiorik gabe. Ulertu al deza kezue hori? Zaila, ezta? Belandiako herri osoa erabat aztoratu duen gertakizuna izan da. Pako Aristik bere lumaren bizitasuna, bere irudimenaren aberastasuna eta bere umorearen zorrotzasuna agerian utzi ditu ipuin honetan. Jokin Larrearen marrazkiak ere tonu beretik doaz, irudimentsuak eta biziak dira •



Don Kijote Mantxako
Miguel de Cervantes
EREIN

“Mantxa aldeko herri koxkor btean, bere izenik ez nuke gogoratu nahi...” horrela hasten da Cervantesen liburu ezagunenaren euskarazko bertsioa. Erein argitaletxeak kaleratu berri duen bertsio hau Pedro Maria Berrondok itzuli zuen eta Patxi Ezkiagak egin dako egokitzapenekin argitaratu da. Liburu klasiko eta ezagun hau euskaraz irakurtzeko aukera ematen digu •



90eko hamarkadako haur eta gazte literatura
Manu Lopez Gaseni
Xabier Etxaniz Erle
PAMIELA

Egileek haur eta gazte literaturaren inguruko ikerketa bat egin dute eta liburu honetan bildu. 90eko hamarkadan kokatuta, testuak eta testuingurua aztertu dituzte, eta baita beste hainbat alderdi ere: irakurleak, idazleak, instituzioak, bitartekariak, merkatua eta erreperitorioa •

Erakusketa

Ikasle etorkinei
euskara irakasteko
proiektu eta
material didaktikoen

**erakus-truke topaketaren
II. SAIOA**



Maiatzaren 6an **Bilbon, Unamuno BHI**n

Erakus-trukea: 16:30-20:00

Hitzaldi-tailerra: 17:30-19:00 * Materialgintza

**Consol Rivas eta Gemma Iglesias
La Fraga ikastetxeak (Salt, Girona).
Ikasleen % 90 etorkina da.**

Maiatzaren 7an **Donostian, Miramar jauregian**

Erakus-trukea: 10:00-13:30

Hitzaldi-tailerrak: 11:00-12:30 * Materialgintza

**Artur Noguerol, Bartzelonako Universitat
Autonomako irakaslea eta JALING proiektu
europarreko Espainiko ordezkaria.**

* Proyecto integrado de lenguas

Rosa María Ramírez

**Bartzelonako Villa Olimpica ikastetxe
zuzendaria**

Informazio gehiago eta izena emateko:

Itziar Aramaio: itziaramayo@msn.com / 655 723 965

BIGE-EHIGE: bige@ehige.com / 944 169 360 - 944 793 855

Getxo Linguae 2005 Hizkuntzak eta kulturak landu

Maiatzak 18

9:30-11:30 Jesús Tusón, "Lenguas, culturas y prejuicios lingüísticos".

11:30-12:00 Atsedenaldea

12:00-13:30 Jesús Tusón, "La diversidad de las escrituras: orígenes y evolución".

15:30-16:30 Badalonako Eugeni D'Ors ikastetxeko esperientzia.

16:30-18:00 Mahai ingurua: "De qué manera enriquece la diversidad lingüística y cultural en el aula?", Jesús Tusón, Amparo Tusón eta Virginia Unamuno.

18:00-18:30 Getxoko udaleko esperientzia.

10:30-11:45 A aretoan: Omer Oke, "Aportaciones a la multiculturalidad en educación desde la Dirección de Inmigración".

B aretoan: Mercé Bernaus, "Multilingual and multicultural in the foreign language class".

11:45-12:15 Atsedenaldea

12:15-13:30 Belen Uranga (UNESCO etxea), "Etorrinen hizkuntza, euskara eta identitatea".

15:30-16:30 Bartzelonako Collaso I Gil ikastetxeko esperientzia.

16:30-17:30 Mungia BHIko esperientzia.

17:30-18:30 Zurbaran LHIko esperientzia.

Maiatzak 19

9:00-9:30 Virginia Unamuno, "La diversidad lingüística como riqueza, recurso y reto".

Informazio gehiagorako:

www.getxolinguae.net

Psikomotrizitatea: sentsibilizazio ikastaroak

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak Heziketa praktika psikomotrizatean prestatzeko bi urteko ikastaroa antolatu du 2006ko urtarriletik 2007ko abendura.

Horretarako, aurretik eskolak berak antolatutako sentsibilizazio ikastaro bat egina eduki behar da. Hurrengo hilabeteetan hauek izango dira:

Maiatzaren 13, 14 eta 15ean Bilbon (ostiralean 18:30-22:00; larunbatean 9:00-19:30; eta igandean 9:00-15:30).

Maiatzaren 16, 17 eta 18an Gasteizen (ostiralean 18:30-22:00; larunbatean 9:00-19:30; eta igandean 9:00-15:30).

Matrikula epea: ikastaro bakoitza baino 8 egun lehenago.

Prezioa: 134,5 euro

Informazio gehiagorako:

Bergarako UNED

Tel.: 943 769 033

mberriozabal@bergara.uned.es

www.uned.es/ca-bergara

Generoaren inguruko jardunaldiak Gasteizen

"Generoa eta sozializazio prozesuetan azaleratzen diren egoerak" izeneko jardunaldiak antolatu ditu Emakundek. Maiatzaren 5ean izango dira Gasteizen, Emakunderen egoitzan.

Egitaraua honakohau izango da:

9:30 Hasiera

9:45 "Generoa eta sozializazio prozesuetan azaleratzen ari diren egoerak, Carmen García Colmenares", Valladolideko Unibertsitateko Psikologia Saileko irakaslea (baiezatzetke).

10:45 Ikerketa proiektuak: "Ezkontza-hausteen eragina seme-alaben ongizate fisiko eta psikologikoan", Ana Martínez, Deustuko Unibertsitateko Psikologia Saileko irakaslea.

11:15 Atsedenaldea

11:45 Ikerketa proiektuak: "Eguno genero-estereotipoen eta nerabeen

ongizate psikologikoaren arteko lotura", Edurne Galindez, AEFFAko kidea (Familien funtzionamendua aztertze-ko elkarte).

12:45 Mahai ingurua

13:15 Ekimen pilotuak: "COFAMI egitaraua: familian korresponzabilitatea sustatzeko gurasoen prestakuntza", Isabel Bartau, EHUko Hezkuntza arloko Ikerketa eta Diagnostiko Saila.

"Homosexualitatearen aurrean neska-mutilak sentsibilizatu eskolan hasita", Amparo Villar, Bilboko Aldarte elkarteko kidea.

14:15 Mahai ingurua

14:30 Amaiera

Informazio gehiagorako:

Emakunde

Tel.: 945 016 700

E-posta: emakunde@ej-gv.es

Eskola kirolaren inguruko jardunaldiak

Donostian

Eusko Ikaskuntzak antolatu dituen jardunaldi hauek **maiatzaren 26 eta 27an** izango dira Donostiako Miramar jauregian.

Eskola kirolaren antolaketa transizio eta egokitze garaia bizi dugure artean. Interes eta ikuspegi anitz elkar-tzen direla kontuan izanik, ez da erraza suertatzen denen gustuko eredu adostea. Bertako egoera ondo ezagutzen duten adituak elkartzeaz gain, eskola kirolaren antolaketan parte hartzen duzuen koordinatzaile, kirol teknikari, kudeatzaile, entrenatzaile eta gurasoak biltzea dute helburu jardunaldiok, kirol hezitzailearen txalupari aurreranzko arraunkadak ematen elkarlaguntzeko.

Egitaraua honakoa izango da:

Maiatzak 26, osteguna

1. mahaia, 9:00-11:30

- Jose Ramon Garai, Eusko Jaurlaritzako Kiroletako Zuzendari Nagusia: "Kirol ibilbideak eta eskola kirola EAEko Kirol Legearen dekretu berrietan".

- Iñaki Ugarteburu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirolen zuzendari nagusia: "Gipuzkoako eskola kirolaren bilakaera".

- Iñaki Mujika, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirolen zuzendari nagusia: "Udal kirol eskolak: jolastu eta alaitu".

- Luis Maria Sautu, Arabako Foru Aldundiko Kirolen zuzendari nagusia: "Un programa de educación física en las escuelas de Álava para fomentar la participación en deporte escolar".

2. mahaia, 12:00-14:30

- Jon Irazusta, EHUko irakaslea: "Ariketa fisikoa, kirola eta osasuna: oraina eta etorkizuna".

- Susana Gil, SHEE-IVEFeko irakaslea: "Ariketa fisikoaren arriskuak haur

eta gaztetan".

- Susana Irazusta, SHEE-IVEFeko irakaslea: "Pautas para el entrenamiento en la edad escolar".

- Kepa Lizarraga, Bizkaiko Foru Aldundikoa: "Esku pilota en deporte escolar: estudio de la petola y las protecciones".

3. mahaia, 16:00-18:00

- Iñaki Ortuzar, SHEE-IVEF: "El deporte escolar como integrante del proyecto educativo de centro".

- Mariate Bizkarra, EHUko irakaslea: "Eskola kiroleko arduradunen formazioa trebetasun sozialak direla medio".

- Josean Arruza eta Silvia Arribas, EHUko irakasleak: "Kalitate adierazleak eskola kirolean".

- Luix Mari Zulaika, SHEE-IVEF: "Kirol hezitzailea: balizko onurak eta errealitateko arriskuak".

4. mahaia, 18:30-20:30

- Joseba Etxebeste, SHEE-IVEF: "Euskal curriculum eta eskola orduetik harago eginiko kirol joko-jolasak".

- Mikel Egibar, Ikastolen Elkarte: "Xiba proiektua: euskal soin jarduerak eskolan".

- Oidui Usabiaga, SHEE-IVEF. Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarte: "Errendimendua eta sustapena uzartzen dituen eredu: Gipuzkoako Euskal Pilota Elkarte".

Maiatzak 27, ostirala

5. mahaia, 9:00-11:30

- David Gil, Fundación Baskonia: "Contenidos técnicos tácticos para categorías de formación".

- Roberto Olabe, Real Sociedad de Fútbol: "Itinerarios de calidad. Formación de calidad".

- Txus Pinedo, Athletic Club: "Bases para el desarrollo de la formación de-

portiva".

- Gotzon Toral, EHUko irakaslea: "Nuevas perspectivas en la iniciación deportiva".

2. mahaia, 12:00-14:30

- Angel Gonzalez, SHEE-IVEF: "Estrategias para promover la participación en actividades físico-deportivas de las chicas en edad escolar".

- Fernando Gimeno, Zaragozako Unibertsitateko irakaslea: "Función de los/as padres y madres en la educación a través del deporte".

- Manu Gzlez. Aramendi, EHU, Oreki Fundazioa: "Promoción de valores éticos por medio del deporte".

- Ana Makazaga, EHUko irakaslea: "Eskola kirolaren analisisa. Arazoak eta irtenbideak".

Mahai ingurua, 16:30-18:30

"Sustapenera eta errendimendura bideratutako kirol ereduak haurtzaroran. Zubigintzako proposamenak"

Mahaikideak:

- Juan Luis Larrea, Gipuzkoako futbol federazioa.

- Julio Calleja, SHEE-IVEF. Espainiako saskibaloiko federazioa.

- Joxe Mari Sarriegi, Atletismoko entrenatzaile eta aditua.

- Pilotako teknikari bat

- Imanol Fdez de Larrinoa, Gipuzkoako Foru Aldundia.

- Asier Intxausti, Bizkaiko Foru Aldundia.

- Ana Makazaga, EHU-UPV.

- Iñaki Iturrioz, KHHE iritzi taldea, kirol hezitzailea, hauren eskubidea.

Informazio gehiagorako:

Eusko Ikaskuntza

Tel.: 943 310 855

www.eusko-ikaskuntza.org

Muga guztien gainetik ...euskaraz!

Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastola

1973an sortu zen Aguraingo ikastola, bizpahiru hurreko gelekina. Gurasoen abalei esker eraikin berri bat egiten hasi ziren. Egun, herrian erreferente bihurtu da ikastolaren hezkuntza proiektua, eta Aguraingo hirutik bik hautatzen du D ereduarekin seme-alabentzat. Herrian B ereduarekin eskaintzen zuten eskola publikoak eta ikastolak bat egin zuten iazko ikasturtean, denak D eredura pasatuz. Zentruan Haur eta Lehen Hezkuntzako 300 ikasle daude, eta 30 irakasle.

Euskarari dagokionez, bi dira ikastolaren erronkak: erabilerak mola sustatu, eta herrian geroz eta gehiago izango diren etorkinei mola erantzun (dagoneko gelan bizi izan dute ez euskararik eta ez gaztelararik ulertzen ez duten ikasleen murrizketak, Inma Corresek, eta ikasketak buruak, Ander Goik, ireki digute euren eskolako atea.

Aguraingo ikastola eta eskola publikoak elkartu egin ziren iazko ikasturtean, ikasle kopurua medio. Izan ere, herriko haurretan hirutik bik hautatzen zuten, gutxi-gehiago, ikastola (D ereduarekin). Beste herena, mojen ikastetxerak (tradizioz A ereduarekin izan dena eta gizartearen joera medio egun B ereduarekin). Eta Aguraingo eskola publikoak ere, Markos Sagasti zeritzanak, B ereduarekin eskaintzen zuten, baina azken urteetan matrikulazioak dezente egin zuten behera. Herriarren eskaera ikusita, bi zentroek bat egitea komeni zen. Baina nola egin bat, hori zen kontua.

“Integratzea da egin duguna, eta ez fusioa. Ez baita gauza bera, eta klabea da hori argi uztea”-dio ikastolako zuzendariak, Inma Corresek.

Fusioa bi berdinen arteko elkarketa da, eta ikastolak argi zuten elkartzeko ez zuela bere izaera galdu nahi: “gure hezkuntza proiektuarekin eta D ereduarekin segi nahi genuen, bi baldintza horiek derrigorrak ziren guretzat. Fusionatu ezker, B ereduarekin mantentzeko arriskua zegoen, baita B ereduarekin eskaintzeko ere (errentagarritasuna edo gelen murrizketa argudiatuta, sarri B ereduarekin jotzen baita)”. Legea aztertuta, ikusi zuten integrazioa zela euren egoerari erantzuten zion ereduarekin: “mantentzen dugu gure D ereduarekin, gure ikastetxe proiektuarekin, eta izena. Ikastola izaten jarraitzen dugu, sare publikoan”.



Gurasoen kezka

Zentro bakarra osatuta, B eredutik zetozenak ongi egokitu dira D eredurara. B ereduko ikasle ohiek, D ereduko taldeetan banatzean, irakasle laguntzaile bat izan dute gelan, euskara indartzeko. Gainera saio batzuetan gelatik irriten ziren irakasle horrekin, euskara sakontzeko. Irakasleei dagokionez, eskola publikoko irakasleek jarraitzen dute gaurko zentroan. Integratu aurretik bizentzietan prozesu bateratzaile bat eraman dute: kurtsoko programazioak batera egiten zituzten, baita hainbat txango ere ikasleek elkar ezaugutzatzen, edota irakasleen prestakuntza bera.

Gurasoen kezka bakarra, zera da: seme-alabei ezingo dietela lagundu eskolako lanetan. Ander Goñi ikasketa buruak argi esaten die, horretan arazorik ez dagoela: "Haurrak etxean ikusi behar duena soilik da gurasoak arduratzen direla bere ikasketez, etxeko lanak egiterakoan ondoan daudela, eta gurasoek ondo ikusten dutela berak euskaraz ikastea. Hortik aurrera, gurasoak noraino diren matematiketan laguntzeko kapaz, hori gutxienezkoa da".

Gurasoen profila ez da gutxi aldatu ikastolaren 32 urteko ibilbide honetan. Lehen gurasoek euskararekiko apustu argia egiten zuten, eta euren haurrek euskaraz ikas zezaten prest zeuden azpiegitura kaxkarreko eskolaren alde egiteko, etorkizuna zein izango zuen



jakiterik ez zegoen eskolaren alde egiteko. "Gurasoek konfidantza osoa jarri zuten bai irakaslearengan, eta baita hizkuntzarengan berarengan ere. Inma Corresek. Gaur gurasoek ikastola hautatzen dute bai euskararengatik, baina baita egoerarik onenean gaudelako ere (eraikin berria dugu), eta baloratzen dutelako gure hezkuntza kalitatea. Alegia, gaur faktore gehiago hartzen direla kontutan ikastolan matrikulatzerako garaian".

1973an, euskara hutseko eredu, Agurainen

Felisa Zabaleta eta Junkal Olaondo andereñoak hasi ziren lehen-lehenik, Gipuzkoatik etorrita, euskarazko eskolaren oinarriak jartzen, gurasoekin batera. "Garai hartan ez zegoen irakasle titulua zuen askorik, eta gurasoek bilatzen zuten jende euskalduna eta Euska-

ra, Euskal Kultura eta Euskal Nortasunaren kontzientzia berreskuratzea zen eginkizunik garrantzitsua. Hasierako irakasle haiek egin zuten lana izugarria da. Titulurik ez zeukaten, baina garai hartan sortzen ari zen pedagogia berritzaile hartan (pedagogia esperimentatzaile hartan, edukietan soilik oinarritu beharrean haurrak ingurua aztertzeraz ateratzen zituen pedagogia hartan), mila buelta ematen zizkiguten haurrekin lan egiteko moduan. Eta ikastola izan zen, gainera, bi urteko haurrei hezkuntza eskaintzen aitzindaria (Haur Hezkuntzarik ez baitzen jasotzen orduko hezkuntza sisteman), sorrerako urtetik bertatik hasita". Inma Corresen hitzak dira. Ikastola sortu eta sei urtera etorri zen Agurainera; Arabakoa bertakoa zen lehen irakasleetako bat izan zen Inma, irakasle ikasketak bukatu berritan iritsi zena. Gaur, ikasle ohiek dakartzate eskutik seme-alabak

Inma Corres:
"Agurainen hirutik bik jotzen du D eredura. Gurasoek ikastola hautatzen dute bai euskararengatik, baina baita egoerarik onenean gaudelako eta baloratzen dutelako gure hezkuntza kalitatea"

Inma Corres zuzendaria
Ander Goñi ikasketa burua



Lehen aldiz, arabiera soilik zekiten bi ikasle izan dituzte aurten, eta egokitzapen berezia egin behar izan dute. Epe motzera, hori da irudikatzen duten errealitatea.

ikastolara. Lehen promozioan hiruzpau ikasle izatetik, 300 ikasle izatera pasadira (herriko haurren bi herenak), eta 34 irakasleko taldea dago.

Hizkuntza kalitatea eta erabilera

Ikastolaren 32 urteko ibilbideak herrian utzi du arrastorik: gaur gazte gehienek badakite euskara, eta jada hasi dira ikasle ohien seme-alabak etortzen; guraso berriok etxean euskara eskain dezakete, orain 20 urte posible ez zena (nahiz askotan guraso bietan batek ez duen euskara menperatzen, eta beraz, etxeko hizkuntza euskara izatea zaila den). “Haur Hezkuntzan igarri da hori. Bi urteko haurrengan, euskara ezagutza hobea da. Lehen agian gurasoek euskararekiko motibazio gehiago zuten, baina ezagutza maila txikiagoa zen. Gaur ikasleen artean, kalitatea igo egin da”, Ander Goñik ziurtatzen duenez.

Beste kontu bat da erabilera (eta hori ez da eskolaren arazoa soilik, gizartearena baizik). Eskolatik irtetea (nerabezaroan) euren arteko hizkuntza gaztelera bihurtzen da, ahalik eta adin batera iristean kontzienteki erabakitzen dutenera arte euskara “berreskuratzeko” ahalegina egitea (esaterako, guraso direnean). Horregatik, erabilera sustatzeko, klabea deritzote eskolaz kanpoko ekintza guztiak euskaraz eskaintzeari, “gaur posible baita hori nabarmentzen du Inma Corresek-, haur eta gazte denek ulertzen dutelako euskara”.

Eskolaz kanpoko ekintzak, funtsezko

Aisialdiko ekintzak euskaraz izan daitezten, gurasoek hainbat aktibitate antolatzen dituzte: ikastalde guztiak txandaka egiten dituzten 5 tailer ezberdin, edo futbito talde mistoa, kasu. Bestetik, “Euskaraz mintza” proiektuaren barruan, gurasoek bi urtean behin jolasen ikastaroa egiten dute, euskarazko abestiak ikasiz, eta ikasleek, berriz, jolasorduetan aldizka begirale bat izaten dute lagun, jolasordua dinamizatzen duena (honen helburua da patioan euskaraz harremantzeko ohitura sortzea).

“Herri mailan ere -gaineratzen du Inmak-, lehenasuneko premia horixe da: udalak ziurtatu behar du herriari eskaintzen dion guztia euskaraz izatea (batez ere haur eta nerabeei zuzendutako ekintzak direnean)”. Herri mailako aisialdi ekintza asko, kirolen ingurukoak batez ere, erdara hutsean egiten dira. Udalaren erronkak behar luke izan, ekintza horietan denetan begirale euskaldunak ziurtatzea.

Etorkinak benetan integraztekoan, D eredura

“Etorkinak integratzeko metodo onena da D ereduan murgiltzea -argi du Inma Corresek-. Gure eskoletan nahi ditugu hartu, eta gainera horrela behar du. Baina hori bai: baldintzak ziurtatu

behar dizkigute. Hezkuntza Ordezkaritzak laguntza gehiago eskaini behar luke haur horiek euskal eredura murgil daitezen era egokienetan”.

Agurainen etorkinen gorakada nabaritzen omen da. Ikastolan oraingoz “gutxi” dituzte: 7 ikasle, Marokotik, Argeliatik eta Saharatik etorriak. Euren kezka nagusia da, seme-alabek ikastolan gaztelera ikasiko ote duten. Ander Goñik dionez, “behin hori ziurtatzen diegunean, euskaraz ikastea ondo ikusten dute”.


Lehen aldiz, arabiera soilik zekiten ikasle bi izan dituzte aurten, eta egokitzapen berezia egin behar izan dute, irakasle laguntzaileekin (arabierako hiztegiak ere erosi dituzte irakasle arruntek). Epe motzera, hori da Aguraingo ikastolan irudikatzen duten errealitatea. Izan ere, orain arte Agurain bigarren geltokia izan da etorkinentzat; lehenik Gasteizera edo hiriren batera joaten ziren, eta gero jotzen zuten Agurainera (hirietako etxebizitzaren prezioak medio), baina jada gaztelera ikasita zetozen. Egun, ordea, etorkin familiak lekutu direnean, gero eta gehiago izango dira Agurainera zuzenean etorriko diren senide edo ezagunak, euren jatorriko hizkuntzan soilik mintzatzen dakitela helduko direnak herrira. Horiei ere erantzuten asmatzea izango da Aguraingo ikastolaren erronkatarikoa bat. •



Irailean berritua !!

V. Euskal Herriko
baliabide
pedagogikoen

GIDA



2005-06 eta 2006-07
ikasturtea

GIDA liburuaz gain, aurten,
euskarri digitalean izango duzu

hh

hkh s



Donostian
Uztailak 4, 5 eta 6

Goizez
9:00-14:00
Arratsaldez
Saiñibreak

GUTXIENeko INFORMATIKA EZ DAKIGUNONTZAT - Klarionatik sagura -
NEOBOOK - Power point - PHOTOSHOP -

Aldizkari tailerra: ikastetxeen webguneak Berrian - ORDENAGAILUAREN ERABILERA MUSIKA GELAN
- Bideoa - ANTZERKI KLOWNA - Birziklatuz sortu - SUKALDARITZA ESKOLAN - Jolas tradizionalak - JOLAS
KOOPERATIBOAK - Jolas eragileak - GORPUTZ JARREREN HEZIKETA ETA ERGONOMIA -
Psikomotrizitatea: berraseguratzera - AHOZKO HIZKUNTZA: LEHEN GARRASITIK HITZALDIRA -

Dislexia - DISGRAFIA - Idazketaren didaktika -

IPUINAK NOLA KONTATU - Euskararen erabilera nola sustatu -

LITERATUR TXOKOA: BITORIANO GANDIAGA, JOSE LUIS ZABALA, EIDER RODRIGUEZ ETA KARMELA JAIO -
Historiaren txokoa: erromatarren garaia -

ARTEAREN TXOKOA: ZUMETA - Heriotza heziketan - ADIMEN EMOZIONALA: IKUSPEGI PRAKTIKOA -

Harremanak gelan: prebentzioa eta esku-hartze zuzena - HEZKIDETZA: PENTATASUN EREDUA -

Estresa irakaskuntzan: irakasleak eta ikasleak - IKAS-ESTILOEN ETA ESTRATEGIEN GARRANTZIA HEZKUNTZAN -
Hezkuntza komunitate dialogoak

Matrikula zaitetz
maiatzaren 20a baino lehen
Tel: 943 371 408
www.hikhasi.com

m n t z l z u

hh

hkh s

Un z es
k v sc
Euskal irak
eritza
Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila